



SEXISMOA PRODUKTUETAN

Aukera parekidea eskatzen hasi dira kontsumitzaileak



- **Oihana Etxebarrieta** Espetxea tarteko duten bikote harremanak aztertu ditu
- **Nafarroako administrazioa** Langile publikoen %1,2ri baino ez zaio eskatzen euskara
- **Larrun** Ekonomia feminista ● **Jose Luis Otamendi** «Galdu gaitezen jende artean. Zerbaitek egingo bagaitu, jendarteak egingo gaitu»
- **Net Hurbil** Bill Gatesek Windows erdua nekazaritzara darama orain

GURE GIZARTEARI BURUZKO HAUSNARKETA BAT, AZKEN
HAMARKADATAKO EUSKAL ARTISTEN LANEN BITARTEZ

ERAKUSKETA

2014.10.24 - 2015.01.25

SUTURAK

lo próximo
cerca a

STM

San Telmo Museoa

WWW.SANTELMOUSEOA.COM

Artium

Arte Garaikideko
Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco
de Arte Contemporáneo

ELKARLANA

Antolatzaileak



San Telmo Museoa



donostiakultura.com



Arte Garaikideko
Euskal Zentro-Museoa
Centro-Museo Vasco
de Arte Contemporáneo

Erakunde babesleak



Patrono pribatuak



Enpresa onpileak



Enpresa laguntzaileak





Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.eus: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Harpidetzak: Iraitx Agirre. Salmentak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus. Web garapena: Asier Iturralde.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxa: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 473163. Faxa: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: GaztelukoPlaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.eus. Harpidetzak: harpidetza@argia.eus. Erredakzioa: kazeta@argia.eus. Interneten: www.argia.eus. Lege gordailua: SS 837-2012. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Euskal Herria: 145 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko abenduaren 28a, 2.443. zenbakia

ASTEKO GAIA

MARKETIN SEXISTA Gama neutroa eskatzen du herritar askok. ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 4

PERTSONAIA

ITZIAR LOPEZ DE LACALLE: «Nik ikastolan nahi nuen, euskaraz erakutsi, euskal munduan lan egin».
MIEL A. ELUSTONDO / 10

GAIK

PREKARIETATEAREN AURPEGIK Elikagaien bankutik jasotzen dugu janaria hilerok. ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA / 15
KOLEKTIBIZATU Apunteak elkarbanatu eta ikuspegi kritikoz janzteko proiektua. MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 16

IRITZIAREN LEIHOA

ESPETXE POLITIKA ETA BAKEA

GARBINE BIURRUN MANCISIDOR / 18

URMENETA: NIRE KONTAERA

KIKE DIEZ DE ULTZURRUN SAGALÁ / 20

URDURITASUNA

JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 21

GORA PRO NOBIS

ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN

Kutxa horiak. JOANES ETXEBARRIA / 20

ERDIKO KAIERA

JOSE LUIS OTAMENDI: «Kezka bertsuei garaian garaiko janzkera poetikoa ematen ahalegintzen naiz».
MIEL A. ELUSTONDO / 22

ARTAZIAK

Kultur bitartekaritza helburu. MYRIAM GARZIA / 26

LITERATURA

SAIOA RUIZ / 28

MUSIKA

JOXI UBEDA / 29

DENBORA-PASAK

ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

IHESI KORSIKA

Mendien uhartea. LUIS DÍAZ / 32

ZIENTZIA

JOXERRA AIZPURUA SARASOLA / 36

LANDAREAK

JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA

NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

OIHANA ETXEBARRIETA: «Lehenengo presoen ongizatea dago, eta gero zu». IRATI SARASUA ARABOLAZA / 39

EUSKARA NAFARROAN Lanpostu publiko elebekarrak eremu euskaldunean. EIDER MADINA BERAATEGI / 42

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 46

NET HURBIL Bill Gatesek Afrika eta Asiako laborariak nola salbatuko dituen. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Gama neutroa eskatzen du herritar askok

Susaeta argitaletxearen bi ipuin aurkezten dituen argazkiak (behean ageri den *Neskentzako ipuinak* eta *Mutikoentzako ipuinak*) su hartu du sare sozialetan. Herritar askok ipuin hauek erretiratzeko eskatuz gutuna idatzi du eta Susaetak erantzutera beharturik ikusi du bere burua. Jasotako gutunak neska eta mutilei buruzko bereizketa eta aurriritziak azpimarratu baizik ez ditu egin, ordea. Kasu hau izebergaren erpina dela jakitun, oinarria aztertzerako jo dugu erreportaje honetan.

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |



Amelia Barquinek bere Kinka blogeko *Txankleten eta galtzerdien sexuaz* artikuluan argi azaldua du dilema "gizonentzat zuekoak, emakumeentzat txankletak" kartelaren harira (argazkian): "Kartel horiek zer dira, deskriptiboak ala preskriptiboak? Alegia, besterik gabe azaltzen digute nork erabili ohi dituen produktuok (zertarako?), ala esaten digute nork erabili behar dituen?".

2013-2014eko Gabonetako kanpaina: 186 iragarki aztertuta ateratako ondorioak

Protagonismoa:

- ▮ Iragarkien %74an neskak agertzen dira eta eurak dira iragarki horien hartzaile nagusiak.
- ▮ Mutikoak iragarkien %66an agertzen dira.

Ematen duten irudia:

- ▮ Neskak protagonistan diren iragarkien %21ean "pinpirin eta fisikoaz kezkatuta" daudenaren irudia ematen dute.
- ▮ Mutikoak protagonista diren iragarkien %22an "gerlariaren edo militarren" irudia ematen dute.

Zer jostailurekin lotzen dira neska-mutikak:

- ▮ Neskak protagonista dituzten iragarkien %63etan panpinak eta osagarriak aurkezten dituzte.
- ▮ Mutikoak protagonista dituzten iragarkien %50 akziozko figurak eta ibilgailuak aurkezten dituzte.

Teknologia:

- ▮ Neskei zuzendutako jostailuen %31k funtzionaltasun elektronikoren bat dute.
- ▮ Mutikoei zuzendutako jostailuen %67k funtzionaltasun elektronikoren bat dute.

Koloreak:

- ▮ Neskatei zuzendutako jostailuen %47k arrosa kolorekoak dira.
- ▮ Mutikei zuzendutako jostailuen %62ak kolore biziak dituzte.

Eszenografia:

- ▮ Neskak protagonista dituzten iragarkien %71 barruan eta etxean gertatzen dira.
- ▮ Mutikoak protagonista dituzten iragarkien %45 kanpoan eta naturarekin lotuta gertatzen dira.

Musika:

- ▮ Neskei zuzendutako iragarkien %68an musika ezta eta lasaia da.
- ▮ Mutikoei zuzendutako iragarkien %58k erritmo biziko musika dute.

Offeko ahotsa:

- ▮ Neskei zuzendutako iragarkien %61en offeko ahotsa neskatila batena da.
- ▮ Mutikoei zuzendutako iragarkien %94en offeko ahotsa gizon heldu batena da.

Leloak:

- ▮ Neskatei, edertasunari, etxeko lanei eta zaintzari lotutako leloak erabiltzen dira: "Amarik onena izango zara".
- ▮ Mutikoetan, garaipenarekin eta nagusitasunarekin lotutako leloak erabiltzen dira: "Zure trebezia izango da zure aliatu onena borrokatzeko eta irabazteko".





“EGUN, produktu, publizitate eta denden antolaketa osoak etengabe azpimarratzen du neska-mutil bereizketa” pentsatu du askok Susaetaren ipuinen kasuaren aurrean; ipuin hauek titularrera eraman dutena adierazten digutela ia produktu guztiek, hitzez ez bada ere (ezta beharrik ere!). Baina esplizitu egitea badela zaindu beharreko marra gorria adierazi digu Bilgune Feministako kide Oihana Etxebarrietak: “Oso garbi adierazten duelako ipuin estilo bakoitza nork irakurri behar duen. Banaketa horrek bazterketa dakar eta ondorioztatzen zaramatza ‘neska izateko honela izan behar duzu’”.

Marketinak edo gehiago saldu nahiak ekarri du produktuen alferrikako sexuatzeara. Gizonek bizarra egiteko aitzur bat eta emakumeek bizarrak kentzeko beste bat diferentia “behar” izatea. Itxuraz bezeroen behar eta izaerara gehiago egokitzen diren produktuak dira eta sexua izaera horretan guztiaren gainetik azpimarratzen den bereizgarria da, produktu horren funtziorako zerikusirik ez badu ere: galtzontzilo eta kuleroak bereiztea gauza bat da, baina zer zentzu du galtzerdi edo zapatak sexuen arabera diseinatzeak? Muturreko dibertsifikazio honen helburua kontsumismoa bultzatzea da.

Benetan gero eta aukera gehiago ditugu?

Dibertsifikazioak aukerak zabaltzen dizkigula irudi luke lehen kolpean. Baina gama femenino eta maskulinoa markatzearen emaitza guztiz kontrakoa dela azaltzen du Amelia Barquinek *Txankleten eta galtzerdien sexuaz* blegean: “Askatasuna gezurrezkoa da: bezeroak nahi duguna erosi ahal dugu, bai, baina ezin dugu nahi duguna erabili, mila modutara jakinarazten zaigunez. Manten dezagun gizon eta emakumeen arteko distantzia, ez gaitezen nahastu”. Erosketa errazteko, aukeraketa laguntzeko egiten dela argudiatzen dute sal-

Koloretako piezatxoekin eraikuntzak egiteko aukera ematen duen etxeak 1974an ohar hau zabaltzen zuen (ezkerreko argazkian) eta publizitate parekidea egiten zuen. Egun, bi gama bereiziaz ditu: eraikuntzaren iruditeria eta indarrarena mutilei bideratua dago, eta piezatxo arrosen zaintzaren iruditeria eta harremanena neskei bideratua. Arreta deitzen du eraikuntzen ikur den markak neskei bideratutako jolasetan etxeak aurrez eginak ematen dituela, eraikitze ahalmena garatzeko aukerarik eman gabe.

tzaileek, baina erosleri nekagarri ere suerta dakioke produktu bakoitzaren aurrean “neskentzat” “mutilentzat” dilema faltsu horretan etengabe kokatu beharra, eta taldearen onarpena kolokan sumatu nahi ez duten haurrekin sarri ez dagoen lekuan arazoak sortzen dira; “ez, tira, hobe Minnie hartzen badut, Mickey mutilentzat da eta...”.

Gama arrosa, unibertsal maskulinoa eta guztiontzako gama zabala

Erosleone pertzepzioa da apalategi arrosaz, produktu arrosaz bete direla dendak. Gama arrosa sortzeak sexismoa areagotu duela salatzen dugu, baina Etxebarrietak oroitarazi digunez mundu arrosaren aurreko hura ez zen unibertsala: “Lehengo produktu unibertsal haiek izan zitezkeen ikuspegi maskulino batekin egindakoak. Horrek ez du esan nahi, esaterako, neskok baloiarekin jolastu ezin genuenik. Orain merkatu feminizatua sortu da baina ez dena unibertsala”. Gizartean jende askok eta askok eskatzen dutena zer den bistakoa da: “Gama zabala denontzako balio duena”.

Benetan gehiago saltzen da bereizita?

Etxebarrietak bestelako produktu, publizitate eta denda antolaketa bat lantzen gonbidatzen ditu saltokiak: “Ausartuko nintzateke esatera beste modu batean egingo balute agian gehiago salduko luketela; jende asko erabat nazkatuta gaude panorama honekin. Ikuspegi ekologikoa saltoki handietan sartu den bezala, lanketa honek ere bere sarbidea izango duela pentsatu nahi nuke”.

Bada ekintza positiborik dendarien artean: Toy Planet jostailu etxeak aurtur katalogoa egiterakoan bereiziki zaindu du argazkietan islatzen diren rolak, eta ume guztiak erakutsi ditu era guztietako jostailuez gozatzen. Donostiako Toy Planet-Jostamendi dendako

Ba al zenekien 1940 arte arrosa “mutilena” zela?

JEANNE MAGLATY-K smithsonian-mag.com webgunean argitaratuta-ko artikulutik koloreek AEBetan izan duten bilakaera laburtu dugu, hemengoa ere ulertzeko argigarri izango delakoan.

Umeak mendetan zuriz jantzi izan dira 6 urte egin artean. Egun, berriz, jaio orduko adierazi nahi izaten da haurren sexua belarritakoe-kin, eta kolore arrosa eta urdinez bereiziz. Bi kolore horiek, gainera-ko pastel tonuekin batera, XIX. mende erdialdera iritsi ziren hau-rraren arropetara, baina Munduko Lehen Gerratearen bezpera arte ez zitzaizkion kolore bakoitza sexu bati atxiki. Eta alderantzizko esanahia eman zitzairen gainera: gorria-



AEBetako presidente izango zen Franklin Delano Roosevelt, 1884ko argazkian. Garai hartan janzkera hau neutroa zen.

ren aldaera den arrosa gogortasuna-rekin eta mutilekin lotzen zuten eta urdina fintasunarekin eta neskekin.

1940an aldatu ziren kolorez sexuak. 1960an emakumeen aska-pen mugimenduak anti-femenino eta anti-moda mezuak zabaldu zituen. Unibertsetan bilatu zen baina Rooseveltten garaian gertatzen zenaren kontra, neskak “mutilen” tankeran jantzen hasi ziren, neska-tilek izan zitzaizuten mutilen tratua eta aukera berak. 1985ean haurdunaldiko frogek gurasoak neska edo mutila ote zetorren zain jarri zituz-ten eta jaioberrientzat sexua marka-tuta duten produktuak erosten hasi ziren. Marketinak egin du hortik aurrerakoa.

arduradun Idoia Gallardok azaldu digu azken urteetan bezeroen artean sumatzen zuten eskariari erantzunaz eman dutela aurten pau-soa: “Taz sare sozialetan halako argazkiek oso

harrera ona izan zuten eta aurten katalogora eramane ditugu”. Zehaztu behar da katalogo-an euren markako jostailuak aurkezten direla modu parekidean, baina gainerako etxeek

Zuri esker



garraio publikoa gipuzkoarren %64ren onurarako da.

Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.



mendekotasuna duten 26.472 pertsona artatzen ditugu.

1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

azken bi urteotan 1.000 lagun gehiago matrikulatu da euskaltegietan.



Gipuzkoa hondakinen %42 birziklatzen ari da eta 2016an %60ra iritsiko da.



Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.



MARKETIN SEXISTA

ohiko moduan bidali dizkiete argazkiak: “Beste ekoizleei gustatu zaie ideia, baina oraingoz ez dira urratsa ematera ausartu eta ohiko esterotipoekin jarraitzen dute. Sukalde-txoetan bai, hor mutilei leku egin zaiela ikusten da”. Bezeroek oso gutxik egin diela aipamenik esan digu, baina jaso dituzten aipamen guztiak oso positiboak izan direla, “bazela garaia esan digute”. Gallardok dudari jarri du koloreagatik benetan gehiago saltzen ote den: “Ados, badira bezero batzuek oso garbi esaten dutenak ‘arrosa ez dugu nahi mutilentzat’ edo ‘auto telegidatua neska batentzat ongi ikusten duzu?’ onespena bilatzen dutenak. Baina normalean produktu neutroek oso harrera ona izango lukete. Salmenta aldetik, patinetea erostera datorrenak berdin erosiko du patinetea, hori delako umeak nahi duena, nahiz arrosa ez izan”.

Saltzaileen erantzukizuna

Saltokiek ardura sozial handia dute parekidetasuna lortzeko bidean. Ordea, ez dugu aurkitu euren gizartearekiko konpromisoetan txertatuta duenik. Susaetako kasuaren aurrean hiru erantzun hauek jaso ditugu: Santurtziko Mamariga auzoko Arkupe kioskoaren nagusi Jose Ignacio Martinek gutuna bidali du Susaetara, esanaz ordura arte ez bezala, haren produkturik ez duela salgai jarriko kioskoan, ipuin horiek erretiratzeko ez dituen artean. Gexan Sors-ek, Elkar Taldeko Marketin Zuzendariak adierazi digunez, “gure dendetatik halako liburuak kentzeko erabakia hartu zen”. Erantzukizuna sortzaile, argitaletxe eta saltzaileena, partekatua dela azaldu digu: “Sorkuntza autore bakoitzaren erantzukizuna da baina Ttartalo eta Elkar argitaletxetara iristen zaizkigun proposamenak argitaratu edo ez erabakitzerakoan, parekidetasunaren printzipioekin talka egiten duten edukiak bazter uzten ditugu eta ez ditugu argitaratzen (hala ere, esan behar da hemengo sortzaileek aurkeztutako lanetan, zorionez, irizpide hauek ongi betetzen direla). Gure dendetan, eskaintza egokitzen dugu parekidetasuna, giza eskubideak... bermatzen dituzten argitalpenekin. Ezinbestekoa ikusten dugu argitaletxeen laguntza, eurak dira profesionaltasunez eta zuzen jokatu behar dutenak lehenik”.

Ipuin hauek salgai dituen Eroskiko Gizarte Erantzukizun arduraduna den Alejandro Martínez Berriochoak azaldu dizkigu produktuak hautatzeko irizpideak: “Haurren jostailuak hautatzeko orduan, produktuaren heziketa elementuetan eta kanpainaren salmenta potentziallean oinarritzen gara; horretarako, aurreko urteei erreparatzen diegu, eta hornitzaileak komunikazioan eta publizita-

Susaetaren erantzuna

Hona lñaki Susaetaren izenean jasotako gutunaren pasarte esanguratsuetako bat:

“Gauza zen printzesen liburuak Neskatoentzako ipuinak izenburupean biltzea, amonek eta amek normalean printzesen liburuak euren alabentzako erosten dituztelako eta ez semeentzako, eta ez dut uste hori batere diskriminatzailea edo sexista denik, gauza bera gertatzen da filmekin, jostailuekin, soinekoekin eta abar. Erosketa erraztea da bilduma bat sortzearen helburua, inoiz ez dugu inor diskriminatzeko intentzio izpirik izan. Edozein modutan, etorkizunean arazoak eragozteko, liburu hauek argitaratzeari utziko diogu, edizioa agortzen denean”.

tean egin asmo duen inbertsioari”. Liburuen gaira etorrira: “Ez da kontuan hartzen neskatoentzako edo mutikoentzako liburuak ote diren alta emateko orduan. Saiatzen gara liburu guztiak izan daitezela hala mutikoentzat nola neskatoentzat; horrela, gizartean nahasmena edo ezinegona eragin ditzaketen liburuak saltzea saihesten dugu. Gure liburu sortaren bidez berdintasuna bultzatzen saiatzen gara. Edonola ere, egia da zenbait gai interesgarriagoak izaten direla neskatoentzat mutikoentzat baino eta alderantziz (esaterako, liburuaren protagonista zein den), baina irakurleak hautatzen du”.

Erakundeen eskumenak

Emakundeko (Emakumearen Euskal Erakundea) zuzendari Izaskun Landaidak azaldu digu erakunde honek gomendioak bidali dizkiola Susaeta argitaletxeari, “Emakundek ez baitu ahalmen zehatzailerik”. Argitu duenez “Emakundek dituen egitekoen artean dago negoziazio-bideak eta gomendioak ematea pertsona fisiko nahiz juridikoei, sektore pribatuan gertatzen diren sexuagatiko bereizkeria egoerak edo ekintzak zuzentzeko”. Baina nabarmendu duenez, “saltokientzako ez dago araudi zehatzik, gainontzeko gizarte eragile eta enpresa guztien ardura bera dute, baina beharrezkoa izango litzateke gai honen inguruan hausnarketa egitea”.

Norberaren ardura

Jakina da marketinak atrofiatu egin dizkigula gustuak eta desioak, produktu neutro baten bila joanik ere eskaintza binarioarekin topo egiten dugula, norbanakoaren ahalmenak ezdeusa dirudiela kontsumismoa ardatz duen makinatzarraren aurrean... baina mugak muga, beti dago zer egin. Amelia Barquinek Kinka blogean titularretik botea digu enbidioa *Nor ausartuko da panpina bat erosten (bere semea ez den) mutil bati Gabon hauetan?* artikuluan. Inbertsioaren araua delakoa proposatzen digu bertan: “Neska batentzako oparia aukeratzeko orduan, nire buruari galdetzea ea mutil bati gauza bera oparituko niokeen. Eta alderantziz. Galderak balio dezake konturatzeko ea ni ere neska/mutil binomio tradizionala eraikitzen laguntzen ari naizen. Eta gero erabakia hartuko dut, noski, zeren mutikoak baloi bat nahi badu, ba horixe nahi du, zergatik ez. Baina batzuetan ideiaz aldatzen dut”. Oihana Etxebarrietak Olentzeroren gutuna umeekin aztertzea proposatu digu, etxeko guztiek kritikoki eztabaidatzea zer den objektu horiekiko bilatzen duguna, dauden aukera guztiak erreparatzea, publizitateak elkarrekin komentatzea, eta abar. ■



Edukiz jantzi

ARGIarekin



Azken TxoraKIKERIAK
(Kike Amonarriz)

15€

13,50€

harpideentzat

ARGIAN azken hamarkadan
Kike Amonarrizek argitaratutako
txiste onenen liburua.

On eta irri egin!
(234 orrialde)



**2015eko ARGIAren
Egutegia**

9€

ARGIAren Egutegiaren baitan
topatuko duzun edukia:

Historia gaiak
Hitzokeiak
Txisteak
Esaldi esanguratsuak
Bertsoak
Etixerako gomendioak
Zientzia
Santuak eta Euskal izendegia
Eguzkia, ilargia eta mareak



**Europako Nazioen
Mapa**

15€

13,50€

harpideentzat

Nazio burujabeen eta estaturik ez
duten nazioen mapa.

Kontinentea ulertzeko beste
begirada bat ARGIAren eskutik
(Neurria: 81,10 x 59,40 cm)

*Prezio guztiak bidalketa gastuak barne

ITZIAR LOPEZ DE LACALLE

«Nik ikastolan nahi nuen, euskaraz erakutsi, euskal munduan lan egin»

1963ko abenduaren 4an ume apur batzuek Gasteizen, Zerkabarren kaleko 9. zenbakiko eskailerak igo zituzten beren gurasoen eskutik helduta. Laugarren solairuan, ezkerreko atean, zain zuten Izaskun Arrue andereñoa. Gasteizko lehen ikastola. Eskaileretan gora abiatu zen egun hartan Itziar...

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

1963ko hartan 6 urte zenituen. Lehenengo ikastola-egun hartako oroitzapenik batere baduzu?

Oroitzapen argirik ez, baina han izango nintzela uste dut. Gainerakoan, oroitzapen pila! Azken finean, hura nire haurtzaroa izan zen. Oso gogoan dut aita-amekin joan nintzela Zerkabarren kaleko etxe hura ikustera. Izan ere, eskolara hasita nengoen ni ordurako, gure auzoko Florida eskolara. Han eman nituen Izaskunen [Arrue] etxera hasi aurreko bizpahiru hilabeteak. Gogoan daukat Izaskun ezagutzera eta tokia ikustera joan ginela. “Hauxe izango da zure eskola berria” esan zidaten, “eta hauxe zure andereñoa”. Gogoan ditut hitz horiek. Gelatxo bat ikusi nuen, hutsik. Izaskun, berriz, pertsona atsegina iruditut zitzaidan. Handik bi egunera, edo astebetera, eskola hartara hasi nintzen. Hasieran haur gutxi ginen han. Argazki bat badut garai hartakoa, eta han gara Rafa –Izaskunen semea–, Arantza Aranzabal, Iñaki Arriola, Jabi Ugarte, Pedro Elozegi, beste Arantza bat han denbora gutxi egin zuena, Idoia Yoldi, besteren bat eta ni. Horiek ginen hasierakoak. Gero, ume berriak ere etorri ziren, eta lehendik zeuden batzuek, berriz, utzi egin zioten joateari.

Zertan zen eskola ematea, pedagogia, didaktika, metodologia?

Izaskunek esaten ziguna: “Eseri, eseri lurrean indioen moduan!”. Eta hantxe, lurrean jarrita, ematen genuen eskola. Oso oroitzapen polita da. Irakurtzen eta idazten ikasteko, *Martin*

Txilibitu genuen kartila. Oso polita! Han ezer idatzi ordez, Izaskunek zotzak eramateko esan zigun, koloretako zotzak ziren, eta haiekin letrak osatzen genituen lurrean. “Orain egingo dugu A... Orain, T... Orain, M...”. Lehenengo, letrak irakurtzen ikasi genuen. Gero, hitzak. Ondoren, kartilatik irakurtzen hasi ginen. Zenbakiakin, gauza bera. Arbeltxoak ere bagenituen, eta hantxe idazten genuen. “Lurrean jarri duguna kopiatuko dugu arbeltxoan”. Matematikako zenbakiak, berriz, barbantzuak, babarrunak eta botoiak manipulatzat osatzen genituen. Edo kartetan jokatzeko genuen, “eskobara”, eta kartetan batuketak lantzen genituen! Hiztegia lantzeko, berriz, Izaskunek bazuen loto moduko bat.

NORTASUN AGIRIA

Itziar Lopez de Lacalle Añarbe (Gasteiz, 1959), Gasteizko lehen ikastola hartara, Izaskun Arrue andereñoaren etxean hasi zen haurretan zaharrena. Arantza Aranzabal, Iñaki Arriola, Pedro Elozegi, Rafael Pikatoste... izan zituen kide, Olabide Ikastolaren hazia erein zuten gelatxoan. Irakasle ikasketak egin zituen Gasteizen: 1979ko ekainean bukatu eta Duranako Ikastola ireki berrian zen irailean, lanean. 33 urte egin zituen han, Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan. Salburuako Lehen Hezkuntza Ikastetxean ari da iaztik, gustura. Mordoxka ditu garai bateko bizipenak, eta ezpainetan irribarrea duela kontatu ohi ditu duela 50 urteko gorabeherak. Inondik ere, ez zen sasoi txarra izan.





Batean irudiak, bestean hitzak. Batak hitza ateratzen zuen, irakurtzen zuen, eta besteok irudia “kantatzen” genuen: “Nik, nik!”...

Irakasle zara zu zeu gaur egun.

Bai, irakaskuntzan ari naiz aspaldi, eta aurrerakoia iruditzen zait orduko sistema, Izaskunek gurekin erabiltzen zuena. Batere tradizionala ez. Mojetan, han aritzen ziren ikasleak, sekulako kaligrafia pila egiten. Guk aldiz ez, modu naturalean ikasi genuen. Gogoratzen naiz ez gurela kalera jaisterik. Hura klandestinitatea zen. Goizeko hamaiketan ezin, bada, ume koadrila bat kalera irten! Ordainetan, hantxe bertan izaten genuen atsedena, hantxe jolastenginen, edo kartetan edo beste zer edo zertan.

Euskaraz bazenekien garai hartan?

Eeez, gure etxean inork ez zekien! Gasteiztarak nituen gurasoak, Lopez de Lacalle Añarbe. Amaren aldetik tolosarra genuen aitona, oso gazterik Araiara bizitzera etorria. Gure aita, osaba eta beste zenbait, Andoni Urrestarazu “Umandi”rekin hasi ziren euskaraz ikasten. Eskola batzuk eman zituzten, baina ez luzaro, Umandi erbestera joan zen-eta. Oraindik etxean daukat haren gramatika, zahar-zaharra. Gurasoak abertzaleak ziren, eta apustu horixe egin zuten. Lagunekin jolasean gu, eta galdetzen zigutenean bagenekin zer esan behar genuen: “Zer eskolatara joaten zarete zuek?”, haiek. Eta guk: “Eskola txiki batera”. “Zer ikasten duzue?”, “bada, euskara”. “¿Y el vasco para qué?”, haiek, harrituta. Horregatik diot, ausartak izan zirela iruditzen zaidala, garai hartan, Gasteiz hartan, gu ikastolara bidaltzeagatik. Bost urte egin nituen

Izaskunek presioa

“Beharbada, presio handia izango zuen Izaskunek, une jakin batean gaztelaniazko eskolara joan behar genuelako, eta, hara sartu ahal izateko, azterketa bat gainditu behar genuelako. Baina nik, ume nintzenez, lasai bizi nuen hura, nahiz eta ni lotsatia izan eta berak galderak egiten zizkigunean ni larritu. Gurea lagun giroko eskola zen, ez zen ohikoa. Zenbat aldiz gelditu ote ginen Izaskunen etxean bertan bazkaltzen!”.

Zerkabarren kaleko etxe hartan, eta 10 urterekin, institutura, Batxiler lehenengo maila egitera. Nire ahizpa Zerkabarrenen hasi zen, eta Estibaliz hiribideko ikastolara joan zen gero. Neba gazte biak, berriz, Estibaliz hiribidetik Olabide ikastolara. Ni, ordea, Zerkabarren kaletik institutura zuten.

Gurasoak abertzale zirelako eraman zintuzten Izaskun Arrueren etxera, euskaraz eskolatzera. Gogo horixe zutela esango nuke nik. Gainera, beraiek ez zuten euskararik, eta horixe eman nahi seme-alabei! Bestalde, hemen bazen eskola bat, ikastunen eskola, nonbait, eta hantxe jarri ziren harremanetan Maria Teresa Urrestarazu, Ramon Narbaiza eta enparauekin. Ikastun eskola hura, nonbait, gaur egun elizbarrutiaren eskola dugu, lanbidea ikasteko eskola. Gazte ziren, hamaseiren bat urte. “Asteburuetan mendira joaten ginen, kanta batzuk ere ikasten genituen...”, horrelakoak esaten zituen gure aitak. Nik uste giro horretan egosi zela haren abertzaletasuna, Ramon Narbaiza apaizak kutsatuko ziela gogo hori. Argazkiak ere baziren gure etxean. “Hemen Gorbeia gailurrean gaude”, esango zigun aitak. Eta ikastun eskola hartako koadrila zen. Uste dut apaiz haren bidez hasi zela talde txiki bat Andoni Urrestarazuren etxean, euskara ikasten.

Martin Txilibitu aipatu diguzu lehen, euskaraz irakurtzen ikasteko erabilitako liburua.

Irakurtzen ikasi genuen, baina Izaskunek bazuen kezka: “Ume hauek, gero institutura behar dute. Erdaraz ere ikasi behar dituzte gaiak”. Eta *Enciclopedia* erosi genuen, orduko ikasle guztiek erabili zuten liburu famatua.

“Biharko halako eta halako ikasi behar dituzue buruz”, agintzen zigun Izaskunek. Etxeko lanak agintzen zizkigun, alegia. Etxera joan, gaztelaniaz ikasi, eta biharamunean euskaraz azaldu behar genion Izaskuni. Lan bikoitza zen, baina, aldi berean, bietara ikasten genuen, eta ondo! Ipuinak ere kontatzen zituen Izaskunek, eta nire gusturako, arratsaldeak zoragariak izaten ziren: kantatu egiten genuen! Liburuxka bat zuen: kantuen hitzak eta notak ageri ziren bertan. Melodika jo, doinua atera eta kantatzen hasten ginen. Niri asko gustatzen zitzaidan kantatzea, eta horretan pasatzen genuen arratsalde zati bat. Betiko kantuak ziren, herrikoiak: *Itsasoa laino dago, Triste biñi naiñ eta, Isil-isilik...* Nik ikasiak ditudan kantu herrikoi guztiak hantxe ikasi nituen.

Kristau-ikashidea ere bazen han...

Bai, dotrina ere eman behar genuen, katekesira joan behar genuen Gasteizen, eta Izaskunen etxean euskaraz errezatzen ikasi genuen. Handik kanpoko katekesian, gaztelaniaz zen dena, baina beharbada Izaskunek berak gauzatxo batzuk erakutsi zizkigun gaztelaniaz, dotrinari buruzkoak. Ostiral arratsaldeetan, lehiaketa txiki bat egiten zuen. Korru txiki batean jartzen gintuen, galderak egiten zizkigun, eta denak zuzen erantzuten zituenari txanpon txiki bat ematen zion. Ez dakit erreal bikoia edo zer izango zen, baina hura poza ostiralean txanpon hura etxera eramaten zuenak! Gauza polit-politak gogoratzen ditut. Familia bat ginen guztiok. Ume gutxi, eta denok lagunak. Patiorik ez genuen, baina, batzuetan, irteeran, denok batera irten —neska-mutil guztiak kalean zebiltzan garaian, gu nabarmentzeko arriskurik ez zegoenean—, eta Izaskunen etxepeko igarobide moduko batean jolas egiten genuen. Hantxe askatzen ginen!

Eskolaz kanpoko jarduerarik bazen, nonbait...

Bai. Gogoratzen naiz, nik bederatziren bat urte, udalekuak antolatu zituztela eta Lekaro-

Atzo eta gaur

“Orduan Izaskunen etxean beste inon ezin nezake euskaraz hitz egin. Kito. Institutuan hasi nintzenean, berdin, gaztelaniaz ziren harreman guztiak. Gero, irakasle eskolan, euskararen gogoa pizten hasi zen. Izaskunek berak Euskara irakatsi zuen —hautazko ikasgaia zen—, aldi batez, 1978 inguruan. Pare bat aldiz joan nintzen haren saioetara, eta ikasleek betikoa: ‘Hara, gasteiztarra! Eta nola hitz egiten duzu euskaraz?’. Piztia arraroa nintzen. Gero, pixkanaka-pixkanaka euskara leku askotara sartu zen. Gaur egun, ia-ia leku guztietan dago. Aldea oso handia da”.

zera joan ginela, talde txiki batean. Nik, egia esan, betikoak gogoratzen ditut: Aranzabal, Arriola, Elozegi eta Rafa Pikatoste. Ez dakit astebate edo hamabost egun egin genituen han. Gure lehenengo udalekua! Euskara ez galtzeko, edo indartzeko saioa. Gauza asko antolatzen ziren... Eibarren ere izan ginen, Arraten, lehiaketa batean, betiko bostok. Hizkuntzarekin lotzeko jolasak ziren. Komiki bat zen, baina hitzik ez zuen, eta guk hitzak jarri behar genizkion. Edo ipuin baten amaiera asmatzea zen ariketa... Nik uste gure hizkuntza maila neurtzeko ariketak zirela.

Urte asko geroago Peli Martinek ere idatziko zuen Arrateko horretaz. Ondo antzean jardun zenutela eta pozik zirela gurasoak.

Bai, postu ona atera genuela uste dut. Auto batean joan ginela gogoratzen naiz, eta aldizkaritxoak eman zizkigutela sari. Nik uste *Kilikili* izango zela. Behin izan zen hori... Neguan, Gabon kantak ikasten genituen, Brigiden elizara joan eta, egun batean, arratsalde, kantatzen genuen. Ez dakit gure aita-amentzat beste inorentzat kantatzen ote genuen, kanporik etortzen ote zen gu entzutera. Baina elizara joan eta kantatzen genuela, bai. Jaunartzea, bestalde, auzoko elizan egin nuen nik, gaztelaniaz, eta hura prestatzen ari ginela, gaztelaniaz galdetzen zigun apaizak, baina nik euskaraz besterik ez nekien!

Eta orduan?

Orduan?... Behin, apaizak dotrinako galdera bat egin zidan. Nik ez nekien gaztelaniaz erantzuten, baina euskaraz bai: “Badakit erantzuten, baina beste hizkuntza batean”. “A, bai?”, apaizak, “eta zein hizkuntzatan?”. “Euskaraz”, nik. “Bada, esan”. Eta hasi eta buka esan nuen. Ez dakit zen *Sinisten det*, edo zer, baina osorik esan nuen, behintzat. Eta ume guztiak niri begira. Eta ni lotsatan! “¿Pero tú de dónde eres? ¿Eres vasca?”, “¿Sí, pero de Vitoria, como tú!”, nik, lotsati. Institutuan ere gertatu izan zitzaidan,

Mugi txartelaren erabiltzaileak

%64



Zuri esker
garraio publikoa gipuzkoarren % 64ren onurarako da.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

 **Gipuzkoa**
BERRIA

AZKEN HITZA

Zerkabarren 50 urte

“Kale honetara etorri eta iruditzen zait berriro igoko naizela, eskaileretan gora, txirrina joko dudala eta Izaskunek irekiko didala atea. Gelatxora sartu, lurrean jarri eta laster hasiko garela kantari... Ondoren, *Xabiertxo* irakurri eta halakoak egingo ditugula”.

arbelera irten eta han, biderketak, edo zatiketak. Ni euskaraz trebatuta nengoen, orde! Eragiketak egiten nituen, euskaraz nire baitan, eta gaztelaniara itzultzen nituen nire hitzak gero. “Hiru lauko... hamabi”, hori banekien, baina gero “tres por cuatro, doce” esaten ikasi behar izan nuen. Horrelakoak hamaika! Gogor xamarra izan zen hasieran... Nik jaunartzea gaztelaniaz egin nuen, baina nire atzetik etorri ziren Pedrok, Iñakik eta Mendizabal batek, esaterako, euskaraz egin ahal izan zuten, Brigidetan. 1967ko argazkia dut...

Institutuan ere nabarmendu zinen, beraz.

Disimuluan pasatzen saiatu nintzen. Hango irakasle asko Francoren Erregimenekoak ziren. Ahoa itxita edukitzea komeni zen. Ez nuke esango beldurra sentitu nuela, baina banekien, etxean gurasoek esanda, ikastolako zenbait gauza ez nuela kontatzerik. Ez zen komeni esatea. Egokitu nintzen arren, hasieran aldapa gora egin zitzaidan. Bakarrik nengoen han. Pedro eta Iñaki elkarrekin joan ziren, bata bestearekin zeuden. Ni bakarrik. Eta Arantza ere bakarrik joan zen. Institutuan, gainera, alde batetik neskak eta bestetik mutilak geunden. Bi institutu ziren. Gure gelan 42 neska ginen, eta ni, ordu arte, gela txikian eta dozena lagun artean ohituta nengoen. Eta, gauza guztien gaitetik, nik erreferentziazko pertsona bat izan nuen beti: Izaskun, nire bigarren ama! Institu-

Gurasoen ilusioa

“Batez ere, aitaren nahia zen guk euskaraz ikastea. Gazterik hil zen, orde, nik zortzi urte nituela, eta, orduan, amak itsu-itsuan jarraitu zion aitaren nahiari. Gurasoek ez zekiten euskararik, baina horixe nahi zuten guretzat. Uste dut ilusio handia izango zutela guk euskaraz ikasi genuela ikustea”.

tuan, aldiz, gai bakoitzak bere irakaslea zuen, eta *señorita* zen hango tratamendua.

Dakigunez, institututik irten eta Estibaliz hiribideko ikastolara joan ohi zineten, euskarari eusteko, eta etxeko lanak egiteko. Maria Jesus Arriolaren eta Rafa Etxegaraireren laguntza omen zenuten...

Bai, euskara galduko ote genuen kezka zuten gurasoek. Gure etxeetan ez zen euskaraz hitz egiten, ez genuen norekin euskaraz hitz egin. Izaskunen etxean euskaraz hitz egiten nuen, kalera irten eta gaztelaniaz. Hala esango nuke. Dena dela, arestian esan dut, Izaskunen etxetik institutura joan nintzen ni zuzen, Estibaliz hiribideko ikastolatik igaro gabe. Tarteka joan izan nintzen, hala ere, ni institutuan oporretan eta artean ikastolan eskolan ari ziren egunetan. Gainera, nire neba-ahizpak ere han ari ziren. Bai, hango gelatxoetan ere ibili nintzen. “Etorri Itziar, jarri horren ondoan eta lagundu irakurtzen”. Patora irteten ginenean ere, txikiekin jolas egiten genuen, edo zaintzen genituen. Ordudanik gustatu zitzaidan irakaskuntza. Txikitan, Izaskunenetik irten eta etxera joaten nintzenean, panpinak atera, lurrean jarri eta jolas egiten nuen, panpina haiek umeak zirela eta neu nintzela Izaskun.

Irakasle izan nahi zenuen, txikitandik.

Zalantzarik ez nuen. Ikastola batean irakasle izan nahi nuen nik. Irakasle ikasketak egin nituen eta lan bila abiatu nintzen 1979an. Garai hartan, oposaketak egitea zen lanerako bidea, baina oposaketak eginez gero, gaztelaniazko eskolara zindozen erakustera! Nik ez nuen edozein ikastetxetan lan egin nahi, nik ikastolan nahi nuen, euskaraz erakutsi nahi nuen, euskal munduan lan egin. Eta, zorionez, uda hartan bertan jaso nuen Duranako Ikasbidea ikastolan lan egiteko deia, eta bertan egin nituen 33 urte. 2013-14an etorri nintzen Salburuako ikastetxera. ■



Ekain berri

Euskal Kulturaren sustraiak

Sarreraren salmenta | Venta de entradas

ONLINE

www.ekainberri.com

943 86 88 11

Elikagaien bankutik jasotzen dugu janaria hilero

Josune Ibareguren Alkorta naiz, azpeitiarra, eta 43 urte ditut. Orain sei hilabete hasi nintzen herriko elikagaien bankutik janaria jasotzen, etxeokok platerean zerbait eduki zezaten.



LANGABEZIAN GAUDE bikotekidea eta biok, eta 8 eta 10 urteko bi seme-alaba dauzkagu. Nik lan txikiak egiten nituen lehen han eta hemen, baina ez dut sekula lan finkorik izan. Gaur ordea, lan mundua nola dagoen ikusita, niri ere gutxitu zait lana. Bikotekidea, bestalde, urtetan zonaldeko enpresa batean lanean aritua, langabezia geratu zen duela bi urte inguru, eta bukatua du langabeziagatik kobratzekoa zuena. Momentu honetan Diru-Sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzen dugu, baina 426 euro lau laguneko etxe hipotekatu bat gobernatzeko jakina da ez dela nahikoa.

Orain dela urte erdi jo genuen udaletxeko gizarte zerbitzura laguntza eta aholku eske, bai bagenekien diru-laguntzak bideratzen dituztela egoera zailak bizitzea tokatzen ari zaionari. Diru-laguntzen gestioarekin laguntzeaz gain, udalean eman ziguten elikagaien bankuari buruzko informazioa. Hilean behin jasotzen dugu janaria, eta hilabetea salbatzen digu herritarrek bideratutako ekimen honek.

Oso pauso gogorra izan zen udalera laguntza eske joan behar izatea, horrelako egoerak ez baitaude batere gizarteratuta, eta gutxiago bertakoen kasuan; herritarrei urrutikoa egiten zaie egoera hau, ez behintzat bertakoena, atzeritarren kontua dela uste dute... baina jabetzen hasi beharra dago agian bizilaguna daukagula etxekoei platerean zer jarri ez duela. Izugarritzko lotsaz gerturatu ginen lehen aldiz banaketa puntura, gutaz zer pentsatuko zuten erreparoz, baina eskerrak eman beharrean gaude hilero zer jan eduki dezagun militantziaz lanean ari diren guztiei.

Oraingoz etxeko gastuak guk ordaintzeko modua egiten dugu, baina neguarekin batera

"Izugarritzko lotsaz gerturatu ginen lehen aldiz banaketa puntura, gutaz zer pentsatuko zuten erreparoz, baina eskerrak eman beharrean gaude hilero zer jan eduki dezagun militantziaz lanean ari diren guztiei".

gastu energetikoei ere gora egiten dute (kontuan hartu gabe energia enpresek eta gobernuak egindako igoerak) eta dena zehatz-mehatz kalkulatu beharra dago. Saiatzen gara alferrikako inolako gasturik ez egiten, eta nola edo hala, uste dut aurre egingo diogula hotzari. Baina ez dira hor bukatzen herritarren oinarritzko beharrak; zer gertatzen da arroparekin? Bikotekideak eta biok ezer erosi gabe jarraitu dezakegu arropa ondo xamar zainduz gero, baina seme-alabak hazten ari dira eta txiki geratzen zaizkie jantziak. Zorionez, elikagaiak biltzen dituen talde berak arropa bilketa jarri du martxan, eta urte bukaerarako familia edo norbanakoentzako poltsak prest izango dituztela esan ziguten orain gutxi. Eta Gabonekin ere berdin, jostailu bilketa dago martxan, eta herritarrek ematen dutenarekin gure seme-alabei zerbait oparitzeko moduan izango gara.

Gurea ez da kasu isolatua eta jendarteari ikusarazi behar zaio prekarizazio eta pobrezia egoerak ondoan dauzkagula, gero eta gehiago direla, eta edozeini suerta dakiokeela. Gobernuak darabiltzaten politikak salatzeak dira, baina gure esku dagoenari heldu behar diogu, albokoari lagunduz, auzoan, herrian, elkartzasunean eta elkarlanetik. ■



Apunteak elkarbanatu eta ikuspegi kritikoz janzteko proiektua

Unibertsitateko ikasle talde batek kolektibizatu.cc webgunea jarri du martxan, software libre eta lizentzia ireki bidez apunteak partekatzeko egitasmoa. Bildutako materiala kritikoki lantzeko eta gogoetarako tresna ere izan nahi du proiektuak, ahalik eta jende gehienaren parte-hartzeari eta hartu-emanari esker.

| MIKEL GARCIA IDIAKEZ |

MUNDU AKADEMIKOA sarri itxia eta elitista dela iritzi dio Iker De Luzek, webgunea abiatu duten ikasleetako batek. “Mesfidantza errotuta daukagu eta egiten dugun lan guztia guretzat baino ez da geratzen, indibidualismoa eta lehia sustatzen du horrek eta gainera unibertsitateak mugatu egiten du sarrera hainbat edukitar, jakintza ugari ordaindu dezaketenen esku baino ez baitago, nik adibidez ez dut sarbiderik masterretako edukitar”. Hori aldatzeko, lan, apunte eta jakintza guztiak denenen eskura jarri nahi dituzte: “Nola eraikiko dugu Herri Unibertsitate bat, bertan kolektiboki bildu, partekatu, eztabaidatu, zalantzan jarri, kontrastatu, zabaldu eta eraikiko dugun jakintzarik gabe?”.

Alferren txokoa ez, eztabaidarako gunea

Aurrekariak badira. Campus eta fakultate batzuetan apunteak partekatzen dituzte dagoeneko, *El rincón del vago* webgune espainiarraren gisako adibideak ere ezagunak dira, baina ikasleei lana errazteaz gain –azterketei begira esaterako–, dimentsio orokorragoa



hartzen du Kolektibizaturen abiapuntuak: jendearen hartu-emanaren bidez, denenen artean jakintza eraikitzen eta aberasten joatea da funtsa. Are gehiago, proiektuaren lehenengo fasea apunte eta lanen bilketa baldin bada ere, epe ertain eta luzera bildutako horri guztiari ikuspegi kritiko eta herritarra txertatzea da asmoa, euskaraz beti ere. “Adibidez, Zientzietako ikasleek hitzaldia antolatu dutela fracking-ari buruz, sistema kritikotasunez aztertuz? Hori jaso eta gaiari buruzko materialean txertatuko genuke”, azaldu digu De Luzek. Webgunean, lanketa honek hartuko du protagonismoa.

Zenbat eta ekarpen gehiago egin, orduan eta aberatsagoa izango da pilatzen joango den jakintza, dio ikasleak, baina nola bermatu parte-hartzea? Proiektuaren bultzatzaileak hainbat ikasle mugimendutako kideak dira (Leioatik!, Ikasle Abertzaleak, Hara ba!...) eta harreman estua dute ikasle talde eta asanbladekin: “Poliki-poliki karreraka azpitaldeak sortzea da helburua, arlo horietako materiala biltzen, euskaratzen eta kritikoki lantzen joango direnak”. Graduen urte zehatzak eta ondoren karrera osoak ikuspegi herrikoiei eta kritikoa barnebilduta publikatuko dituzte, “horrela, unibertsitatean elitizatua izan den jakintza edonoren eskura egoteaz gain, askapenerako hain beharrezkoa den ikuspegi kritiko eta herrikoia euskaraz izango dugu eskuragarri”. Azken finean, “besteongandik ikasitako, besteekin eraikitako eta gure hausnarketan bidez sortu eta zabaldutako jakintza” partekatzea da xedea. ■



“Unibertsitatean elitizatua izan den jakintza edonoren eskura egoteaz gain, askapenerako hain beharrezkoa den ikuspegi kritiko eta herrikoia euskaraz izango dugu eskuragarri”, diote



zenbat gara elkartea

Done Bikendi 2 - 48001 Bilbo
Tel: 94 423 75 91
e-mail: bulegoa@zenbatgara.org

hamaika
bide

- kafe antzokia bilbo
- gabriel aresti euskaltegia
- gazteola haur eta gazteak
- algara konpartsa
- kurkuluxetan umegunea
- tailerrak eta ikastaroak
- zerbitzuak
- bakaikuko etxea
- bilbo hiria irratia 96 fm
(interneten ere entzungai)
- erroa argitaletxea
- atoan komunikazioa
- gabriel aresti kultura elkarte

hamaika aukera

www.zenbatgara.org



kafe antzokia
www.kafeantzokia.com

Gabriel Aresti
euskaltegia

Gazteola*
Haur eta Gazteak

algara
konpartsa

BI-96.0-FM
Bilbo Hiria irratia

Bakaikuko
etxea

Erroa
argitaletxea

kurkuluxetan
umegunea

Atoan!
komunikazioa

ja
GABRIEL ARESTI
KULTURA ELKARTEA

Done Bikendi 2 - 48001 Bilbo Tel: 94 423 75 91 e-mail: bulegoa@zenbatgara.org



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



LEGELARIA

Espetxe politika eta bakea

EZ DUT ezer berririk esango bake prozesuaz, PPren gobernuaren jarrera arduragabetzat jotzen badut. Hainbat arrazoi daude hori adierazteko, baina arlo zehatz bati helduko diot oraingo honetan: espetxe politika, azken asteotan “berriak” izan ditugu eta.

Azaroaren 24an Carmen Gisasola libre atera zen Entzutegi Nazionalak bere espetxe zigorra betetzat eman eta gero, Auzitegi Gorenak emandako epaiaren ondoren. Egun batzuk beranduago beste bi preso atera ziren arrazoi berberarengatik: Espainian espetxean betetako denborari Frantzian betetakoa gehituz.

Espetxe politika mundu osoan da kezka, baita Europan ere. Horregatik ematen dira arauak maila desberdinetan. Horietako bat 2008an Europako Batzordeak hartutako Erabaki Markoa, non Europar Batasuneko estatu batean emandako epaiak beste estatuetan errekonozitzeko finkatzen ziren oinarriak. Estatuek Erabaki Marko hau sartu behar zuten beren barneko araudian, baina Espainian ez da horrelakorik egin 2014ko azaroaren 12ra arte, 7/2014 Lege Organikoa onartu den arte. Bitartean, hor zegoen Batzordearen erabakia eta hor, baita ere, auzitegiek hori betetzeko duten betebeharra.

Gobernuaren oinarrizko abiapuntua garbia da, baina guztiz okerra: bere ustetan, ETAko presoekiko edozein “keinuk” Estatuaren eta demokraziaren ahulezia adieraziko luke. Guztiz kontrakoa, nire iritziz

Horrela, 2014ko martxoaren 14an Auzitegi Gorenak Entzutegi Nazionalari agindu zion, kasu zehatz batean, kontuan hartzeko Frantzian betetako espetxe zigorrak. Bada, hain zuzen ere, ia sei urte igaro eta gero, inolako mugimendu legegilerik gabe, egun berean Espainiako Gobernuak aurkeztu zuen Lege Proiektua, eta gero, bere tramitazioan hainbat zuzenketa sartu ditu PPK lege horren ondorioak “leuntzeko”. Hau da, Auzitegi Gorenaren irizpideari jarraituz, libre utzi beharko ziren 50-

60 ETAko presoek espetxean jarrai dezaten. Gero, badakigu zer gertatu den: lege hori abenduaren 4an sartu da indarrean eta eztabaida juridikoa dago bere aplikazioari buruz, Auzitegi Gorenak berriro ebatzi arte.

Horrek guztiak adierazten du zein den Espainiako Gobernuaren jarrera eta hainbat alderdi politikorena ere. Bake prozesua ukatzen da eta, gainera, oztopatu egiten da, presoek gaiari inolako tratamendurik eman gabe. Presoek, Ipar Irlandan gertatu zen moduan, zeresan handia eduki beharko lukete bake prozesuan, baina Gobernuak ez du horrelakorik onartzen. Jarrera gogor eta oztopagarri hori islatzen da egunero: presoek urrunketari buruz ez da mugimendurik egon, nahiz eta euren jatorriko lekuetara hurbiltzeko eskatu duten, nahiz eta hori birgizarteratzearekin bat datorren, eta beraz, zeharka, funtsezko eskubidea den.

Gobernuaren oinarrizko abiapuntua garbia da, baina guztiz okerra: bere ustetan, ETAko presoekiko edozein “keinuk” estatuaren eta demokraziaren ahulezia adieraziko luke. Guztiz kontrakoa, nire iritziz: alde batetik, eskatzen dena legea betetzea besterik ez da eta horrek estatu demokratikoa indartzen du; bestetik, paralisiak adierazten du ahuleziarik handiena eta araudiari egiten zaion “iruzurra” islatzen du Espainiako Estatuaren beldurra eta beren planteamenduen hauskortasuna. Edo, bestela, nola azaldu behar dute zein den espetxe zigorraren helburua edota zer gertatzen den zigorrak betetzen direnean? Gobernu batek zuzenbidearen balioa errespetatu eta adierazi behar du eta, horretarako, preso dauden pertsonen egindako min ikaragarria kontuan harturik, pedagogia publikoa egin behar du egunero. Edo zer espero dute, preso horiek betiko espetxeratuta eta urrun mantentzea?

Bukatzeko: presoek hausnarketa berria ere beharrezkoa izango litzateke une honetan, bake prozesuan ekarpen positiborik benetan egin nahi badute. ■





Enrike Diez de Ultzurrun Sagalá

ITZULTZAILEA ♦



DANI BLANCO

Urmeneta: nire kontaera

AURTENGO Nafarroako sari bidegabeak sortu harribotsen haritik, argi dago zer garai duten amets oraindik ere nafar gobernuan dirautenek: frankismoa. Asmo bat zerabilten gogoan: garai politiko hura Huarteren bidez goraiatu eta frankismoaren zauri eta min irekietan piko egitea, eta gibel-asmo bat ere bai: Urmenetaren bitartez dena goitik behera nahastu eta bazterrak ederki inarrotea.

Miguel Javier Urmenetari buruz batik bat nabarmendu da 1936ko gerrara eta “dibisio urdinera” boluntario joan izana, aipatu gabe bietan ere heriotza-mehatxua izan zela tartean, gerrara “boluntario” abiatu aitzinetik. Gero, goi-karrera militarra egin zuen, Iruñeko alkate izan zen, baita Nafarroako Diputazioko diputatu ere. Gaizki eginak aski eta sobra aipatu zaizkio azken asteotan; ez, ordea, adibidez, bere domina eta sari militarrei uko egin izana.

Urmeneta, halaber, bestelako lan batean nabarmendu zen, hots, euskara eta euskaldunak duintzearen aldeko lanean. Izan ere, besteak beste Urmenetaren ahaleginari esker, Euskararen Aldeko Saila (sic) sortu zen Diputazio barruan 1957an, atzeraka etengabea ari zen euskararen alde zerbait egiteko, garai hartako zirrikitu meharrek baliatuz. Bizirik

zirauteen gerra aurreko nafar euskaltzaleak ere pozez bildu ziren ekimen berriaren inguruan, belaunaldi berri batekin batera, garai hartako indar politikoei (klandestinitatean zihardutenek) onarturik. Handik aurrera, besteak beste, euskal jaialdiak, bertsolari txapelketak, ikastolak, euskarazko aldizkaria eta euskal haurrentzako sariak antolatu zituzten. Urmenetak, izan ere, haxe erran zien Saileko

arduradunei: “Haurrak euskarara erakarri behar ditugu; haurrekin batera gurasoak etorriko dira, eta haurrak euskararen inguruan mantentzen baditugu, gure hizkuntzak etorkizuna izanen du”. Ondoren, 60ko hamarkadan, beste belaunaldi gazte bat lotu zitzaion ekimenari, horien artean azken 35 urte honetako euskalgintzan eragile nabarmenetako batzuk izanikoak edo oraindik ere badirenak.

Bada, ekimen horren babesle nagusia, isilean, dela Diputazio barruko beste batzuen iritzien kontra, dela garaian garaiko gobernadorearen kontra, Urmeneta izan zen.

Hortxe dago, beraz, gure iragan hurbila, guztiz ezezaguna; ez da historia ofizialean kontatzen, ezta historia ofizialaren kontrako kontaera ofizialean ere. ■



Urmenetari buruz batik bat nabarmendu da 1936ko gerrara eta “dibisio urdinera” boluntario joan izana, aipatu gabe bietan ere heriotza-mehatxua izan zela tartean, gerrara “boluntario” abiatu aitzinetik

XDZ



Joanes Etxebarria



KAZETARIA

Kutxa horiak

ASTEAN BEHIN Xiberoan, etxeetako atarrietan kutxa horiak bete-beterik ikusten dira goizean goizik, eta husturik berantago. Herri Elkargoaren kartoi, paper eta plastikoen bilketa zerbitzua da. Baina garestiegia omen da, eta 2015ean atez ateko bilketa bukatuko da.

Trukean, etxetik ateratzen diren hondakinak giltzapetua izanen den ontzi batera botako ditugu, pisatuak izanen dira, eta pisu batetik goiti zerga garestiago izanen da. Teorian, etxean bereizketa gutxi egiten duenak kario pagatu beharko du. Badakit sistema hori besteetan jadanik erabiltzen

dela, eta zerbaitengatik ezarriko dutela gurean ere.

Baina badira urteak kutxa horiak badi-tugula, eta hilabete andana jadanik berina ezin dela birziklagarrietan sartu. Kontainer beltzetan, arruntetan, berinak hausten entzuten dira geroztik. Kontainer berdeetan, berinazkoentzat eginak diren horietan, beti bada lekua soberan.

Denborak erranen du aldaketa ongi joanen denez. Gauza bakarra da segurua: hemen zikinak ez dira leihoetatik zintzilikatuko. ■



DANI BLANCO


Joxerra Aizpurua Sarasola

♦ INDUSTRIA INGENIARIA

Urduritasuna

1997. URTEAN eman zitzaion hasiera egun Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarea (Saretek) denari. Dozena bat multzotan banatutako ia 200 elkartek eta erakundek osatzen dute Saretek. Orain 17 urte erronka gisa hasi zenak euskal industrian errotzea lortu du, eta azken horrek garai honetan bizi dugun krisialdian indarrari eutsi badio, neurri batean Saretekeko partaideen ikerketa lanei esker izan da. Are gehiago, gaur egungo euskal ekonomia Sareteken ekarpenik gabe ulertzea oso zaila egiten zaigu.

Saretekek egindako bidea ia hutsetik hasi zenez, ia itsu-itsuan egindako apustua izan zen bai baliabide ekonomikoak jarri behar zituen administrazioarentzat, baita egitura horretan sartu ziren pertsona eta erakundeentzat ere. Sareteken ibilbidea aztertzea eta neurtzea beharrezkoa zen, eta horretan jardun du Eusko Jaurlaritzak azken boladan. Emaizta, 2020. urterako Sareteken helburuak eta funtzionatzeko erak eraberrituko dituen dekretu berri baten zirriborroa izan da.

Aipatu dekretuaren zirriborroa ikerketa zentroetako mahaien gainean dago, eta ezin uka urduritasuna eta kezka sortu dizkiela eragileei. 2020rako jarritako helburu estrategikoak eta antolakuntzazkoak (pertsonala, argitalpenak,

patenteak...) nagusiki Europak planteatutako ildo orokorretan oinarritu direla dirudi, eta horrela, oraingoz Euskal Herriak dituen ezaugarri linguistiko eta kulturalen aipamenik ez da izango. Bestalde, bertako industrian %90etik gora enpresa txiki eta ertainak izanik, oso zaila izango zaio askori antolakuntzazko baldintzak betetzea.

Ni ere bat nator Saretekeko erakundearen egitura eguneratu beharrarekin, baita enpresei egindako ikerketen transferentzia hobetu behararekin ere, baina hori herrialde bakoitzeko ezaugarriak kontuan hartuz egin behar da. Gauden prozesuaren amaieran hainbat erakunde jokoza kanpo geldituko dira eta berriak ere sortuko dira aldi berean, normaltzat jotzen dut. Baina 2020. urtean, Sareteken

argazki korporatiboa egiten denean, *Basque Country* markaren benetako oinarria ikusi nahi dut, hemengo erroak, ez edozer gauza. Eta horretarako, mahai baten edo batzuen bueltan eztabaizatzea eta zenbait puntu adostea baino bide hobeagorik ez zait otutzen.

Urduritasun garaia dira ikerketa eragile guztientzat, eta administrazio-koek ere ezinegonarekin bere sentituko dutela espero dut, ez dutela dena ziurtzat eta inposatu beharrekotzat joko. ■



2020. urtean, Sareteken argazki korporatiboa egiten denean, "Basque Country" markaren benetako oinarria ikusi nahi dut, hemengo erroak, ez edozer gauza


WWW.EMONMUSIKA.COM

EMON "SUA"
HIRUGARREN DISKOA SALGAI
— JAI ERRITMOA GOITIK BEHERA! —

KONTRATAZIOA IREKITA: 618 072 076



baga-baga musika ideiak
 telef. 618 072 076 / 026
www.baga-baga.com / info@baga-baga.com

«Kezka bertsuei garaian garaiko janzkera poetikoa ematen ahalegintzen naiz»

Ekonomia tratatuaren titulua dakar baina poema liburu betea da *Kapital publikoa* (Susa, 2014). “Denona den hori da kapital publikoa”, esan zuen Jose Luis Otamendik liburua aurkeztu zuenean: “Inork beretzat bakarrik hartzerik ez daukana: gabiltzan kalea, arnasten dugun airea, mintzo garen hizkuntza, pertsonak, oroitzapenak, egunkaria, sentimenduak”. Gogoeta eta poetika, liburu eginak, egoera sozio-politikoaren eta eguneroko bizimoduaren hari mehean.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

Diozunez, denona den hori duzu kapital publikoa. Irakurtzen ari nintzen eran, estu idazten jardun duzula iruditut zait...

Estutzat zer daukazu! Estua baldin bada norberak zabarrean egin duena findu nahia, lastoa kendu, ahal den mamienera iritsi, apaindu... horretan bai, estua naiz. Artisau alderdia zorroztua daukat aspaldi. Baina bestela ez dut estu jotzeko asmorik izaten. Are gehiago, libreena, gustukoena, esparru honetantxe sentitzen naiz, poesian. Dena dela, poemak gutxitan irteten du urak kanilatik bezala; gutxitan. Batzuetan gertatzen da hori ere! Gehienetan, hala ere, meatzari lana tokatzen da: harria jo eta jo harria, barruko lokatzetan ibili... “Hara! Hementxe harri koxkorra!”. Bada, hura hartu, garbitu, aztertu, ea harri-txintxor harekin xenda polit bat osa litekeen inorako. Horixe da bidea gehienetan. Nire jarduna, bestalde, oso mekanikoa izan ohi da, ia eguneroko lana dut idaztekoa, oso sarri idazten dut, baina gero ikusi eta... orbela da gehiena! Hortik zer edo zer ateratzerako! Bitartean, orbela metatzen da, koadernoak bete eta bete egiten ditut, eta okasiorako atera, behar denean, noizean behin.

Kasu honetan bezala, liburua argitaratzeko garaia heltzen den arte...

Liburua ontzeari begira hasten naizenean, gauzak ganoraz hartzeko garaia dut. Ordu

arte, idatzi eta idatzi, ez dut besterik egiten. Eta ez dakit zergatik behar dudana idatzi eguneroko ere. Autolaguntzatik ere izango du, seguru asko! Geure buruari egunean tartetxo bat eskaintzeko edo. Hori ibili dut, harik eta lehengo urteko udan, Gorka Arrese editoreak liburu honi begira ari ginela, garbi ikusarazi zidan arte: “Hor ari haiz hi, koadernoak bete eta bete!”. Hain da ona editorea, esan gabe ari zitzaidan adierazten eguneroko idazteari laga behar niola: “Bestela ez duk libururik egingo!”. Eta halaxe, etena egin nuen, eta

joan den urteko udaz gero okasiorako besterik ez dut idatzi, dela barruak indar handiagoz eskatzen zidalako, edo zerbait nahi nuelako osatu, propio, nora edo norako.

Gainerakoan, poemak idatzi, eguneroko lanean...

Aurreko poema liburu *[Erlojuen mekanika, 2007]* egin nuenetik, ia-ia eguneroko idatzi. Testuak idatzi, ez poemak. Testuak, poema izatera iritsi litezkeenak, edo ez. Oso sarri idazten dut, bai, eta, gehienetan, egunari ekiteko garaian, goizetik. Liburu honetako hirugarren atalak ere, *Gosaria eta legea*-k, badu hortik: eguneroko gauza txiki horiek eta. Jaiki orduko, asko, gosaltzen edo gosaldut aurretik, eskolara lanera joan aurretik, koaderno-orrionalde bat bete. Eta, horrela, zortzi-hamar koaderno metatu zitzaizkidan!

“Bereizezinak egiten zaizkit politika eta poesia, poesia politikoaz ari naizenean”



Barruko lokatzetan ibiliz idatzi...

Idazten duzularik —nik behinik behin—, nora-bait iritsi nahi duzu, baten batengana: eta baten bat hori jendea ez bada, norberaren barruan mamia bilatzea da. Barruko lokatz hori, askotan, kanpoko edozein albistek, berrik, kezka edo sentimenduk ematen du. Ez dago besterik, edo nik ez dut besterik ikusten, behinik behin, axaletik begiratuta.

Kapital publikoa du izenburu liburuak, baina ez da ekonomiaz ari... *Zainetan murrailak* (1987), *Poza eta gero* (1990) *Lur bat zure minari* (1995)... zure poema liburu batzuen izenburuak! Kapital publikoa, aldiz, badiotsut, ekonomia tratatua liteke...

Kapital hitzaren adiera aniztasunak gauza askotaz jarduteko bidea egin dit. Kapitala, ondasun edo ondare izan liteke. Hitzaren alderdi polisemikoa baliatu nahi izan dut minena, edo kuttunena dugun horri deitzeko: gure ondarea, geratzen zaiguna, denon eskura dagoena, baina, aldi berean, zaintzea ere denon ardura duguna —galtzen badugu denok galtzen dugulako—, inporta gabe lagatzerik ez daukagun zerbait... Ondare komun eta kolektiboa. Bizitzaren ikuspegi horixe azpimarratu nahi izan dut, elkarrekin banatzeko daukagun hori. Kapitalak, bestalde, denboraren menpeko morrontza, sistema kapitalista esan nahi du, gure eguneroko bizimodua hankaz gora jartzen ari den tramankulu bel-durgarri hori, hemen bezala munduko edo-

“Bereizezinak egiten zaizkit politika eta poesia, poesia politikoa ari naizenean”.

zein bazterretan jende modu guztiak bere onetik ateratzen dituen. Bikoiztasun horrekin jokatzeko bidea eman dit izenburuak, bai maiteenak ditudan gauzei buruz hitz egiteko, bai salagarrienak iruditzen zaizkidan alderdi batzuk aipatzeko. Eta modu intimoaz, letra xehez hitz egin gurean diren gai larriez, alde biak uztartzeko ahalegin bat, samurtasunaren ekarpena egin kontu publikoei...

Gure eguneroko bizimodua hankaz gora jarria... Krisiak gogor jo du Urola bailaran.

Bai, gogor... Gogo horretara jarrita ere eduki dut nik, eta jende askok halaxe jarrita daukala uste dut. Seguru asko, beste herri batean biziko banintz, antzekoa litzateke egoera, nahiz eta xamurragoa izan beharbada. Egoera latz honek badu isla liburuan, bai, gertutik bizi dugu, eta nahitaez, denok harra-patzen gaitu. Baina geure mundu txiki hone-

Gurpil borobila ez

“Lehenengo poeman bertan esaten dut nola bizi izan dudana joan den hamarraldia: bihotzerrearekin. Horixe da memorian geratzen zaidana: bihotzerrea, eta luxuzko lekutik bizita ere! Ikusteko gauza izan naizen heinean, bihotzerrearekin, eta min handiagoekin ere bai. Hala ere, nagoen lekutik, uestez, behar nuen lekuan egonda. Lekurik desegokienean ez nengoela jakinda, nolabait esanda. Kezkarekin, errearekin, baina hortxe. Gurpil hau ertz askokoa da. Borobiletik gutxi dauka gurpil honek!”.

tatik landa ere hainbeste gauza dago ikusi nahi duenarentzat, hainbeste bidegabe eta abandonu, hainbeste dira pertsonak eta duintasun ahantziak...

Lana galdutako auzoa nahiz laguna ez da arrotz Kapital publikoan...

Lanik gabe geratu diren lankideak baditut, gertuko jendea ere dexente... Hori liburura ekartzea normala, ez?

Hiru ataletan banatu duzu liburua: Bake hotza, Jendea oinez, Gosaria eta legea...

Azken aldera hasi nintzen poemen ezpala ikusten, azkeneko sei hilabetea esango nuke. Batean, lagunei irakurtzera eman eta, laster: "Hemen, halako tankerako poemak nagusitzen direla ematen dik! Hemen, joera intimistagoa ageri duk. Hemen, lehengo poemen arrastoan habil". Horiek aditu, gogoan hartu eta azkeneko aldian hiru ezpal ikusi nituen, eta metatxoak egiten saiatu nintzen, liburua osatzeari begira. Baina idazten ari naizela, barruak edo gogoak agintzen didan joera hartzen du testuak, ez dago besterik. Geroko lana da antolatzea.

45 poema dira liburuan, baina askoz gehiago zenituen idatziak...

Ehun baino gehiago. Baina galbahea pasatu beharra dago, eta bizpahirutan ere bai! Lanaren osotasunari begira, kalterik ez egiteko ahaleaginean jardun dugu. Horregatik behar izaten dira irakurlea, eta editorea. Norbera tamaina bateraino bakarrik da lanaren osotasuna zuzen ikusteko; joera nagusiak, bai. Bestalde, hain urragarria da zenbait testu erazteak dakarren mina! Poema askok bizikizun jakinekoak dituzte, baina, zalantzaren aurrean, beti kendu! Horixe da, nire ustez, joerarik osasungarriena liburuari begira: kendu. Norberak plano nagusia ikusten du. Gero, jardunaren poderioz, ikasi egiten da besteren susmoak eta keinuak serio hartzen. Ondokoak ere baditu bere arrazoiak. Azkenean, horiek gogoan hartu eta iritsi den lekura iritsi da liburu hau.

Bake hotza. Joan deneko hamar urte honetako gertaera sozio-politikoaren oihartzun dira poemak. Sozio-politika, sozio-poetika egina.

Bereizezinak egiten zaizkit politika eta poesia, bereizezinak poesia politikoaz ari naizenean... Orain dela hamar, hamabost urte, izan zen Susa argitaletxeak argitaratutako opuskulo txiki bat, *Poema politikoak* [Amukoak bilduma] izendatu nuena. Ez nuen desku-brimendu handirik egin, jakina,

Oraingo gazteak

"Ez dut uste oraingo gazteek gure garaian hainbeste bizi dutenik egoera politikoa."

Zorionez. Gurea perbertsioa da eta. Garen belaunaldikoak izanda, garaia erantzun beharra geneukan, eta batzuek era batera, beste batzuek bestera, erantzuten saiatu gara. Oraingo gazteak, nik ikusten ditudanak, kontziente dira non bizi diren. Gure aldean zailtasun gehiago egokitu zaie. Marka da gero! Gure ondorengo belaunaldia gureak baino segurtasun gutxiagoz ekin dio bere etorkizunari. Kezka politikoak badituzte, sozialak baino gehiago, nahiz eta krisiak kezka pizten lagundu duen".

"Neure buruari errieta egiten diodanean, neure antzeko nahiz oso bestelako direnei ere eztena sartu nahian ari naiz"

hoskidetasunez ere errazkeria delako, baina, liburu honetan gertaera sozio-politikoak, edo sozio-poetikoak, iragazki poetikotik pasatuta-koak dira. Poetiko nahiz politiko, gauza berbera dira gure liburu honi dagokionez. Ni neure ikuspegia ematen saiatu naiz, neure jardunetik, poesiatik. Poema guztietan hitz egiten da gure egoeraz, baina, batez ere, lehenengo atalean. Azpimarra handiagoz, preseski.

"Jendea oinez", gaurko egunari begirako tes-tuak direla esan zenuen aurkezpenean...

Badu hortik, bai, sinple esanda. Eman deza-gun Aiete aurrekoak direla lehen ataleko poemak. Gero, oraingoa, itxaropenez baina ardura handiz bizi dugun garai hau: "prozesua" eta mila izen baino gehiago eman zaizkion aldi hau. Ni, horri poetikoki erantzuten saiatu naiz, nola ikusten dudana ikusten. Aurreko ataleko ezpalak ere badira "Jendea oinez" honetan, baina, nire ustez, nahitaezkoa da agertzea, handik gatozenez! Lasa eta Zabala, hildakoak, itxaropenak, poesiararen egitekoa, aurrera begira zer egin behar dugun... Kezka horiek.

Ziurtasunak urri zure liburuan. Galderak dira askozaz gehiago...

Bai, non eta galdera bera aurrera egiten segitzeko metodoa ez den. Honaino iritsi ahal izateko makuluak ez ote dira galderak, hemen tente eusteko.

Eider Rodriguezek Joseba Sarrionandiaren itsasoei buruz egindako lana *Itsasoa da bide bakarra* (Utriusque Vasconiae, 2014) irakurtzen harrapatu nau zure liburuak. Ziurgabetasuna da ziurtasunik handiena, galderek ez dute erantzunik...

Poesiararen egitekoa ez da galderak erantzutea. Pentsatzen dut gehiago dela galderak formulatzea. Galderek laguntzen dute aurrera segitzeko, galdera gehiago egiten. Dena dela, nik liburuan egiten ditudan galdera asko baieztapenak dira, aldi berean. Badute baieztapenetik, nahiz eta beldurak, pudoreak, baieztapen gisa agertzera ez eman. Galdera erretoriko hutsak al dira, bada? Batzuetan bai, baina ez beti. Galdera asko nork bere buruari egindakoak dira, ni edo gu honi egindakoak. Batzuetan errietari xamarra, nik uste, banaizela.

Eta neure buruari errieta egiten diodanean, neure antzeko nahiz oso bestelako direnei ere eztena sartu nahian ari naiz... Poesiak gauza askotarako bidea ematen du. Da genero bat —beharbada nik egiten dudana eran eginda—, zaila tranpan harrapatzen: lausoa, hitz, konparazio, metafo-



ra... Baina neurri handian horrixeko zor dio poesiak bere handitasuna. Bestela, *Kapital publikoa* Engelsen tratatua izango litzateke, hau da, Familia, jabetza pribatua eta estatua.

Gosaria eta legea-n, hirugarren atalean dago inon baino presenteago kapital publiko hori?

Kapital intimoa, muinekoa, bai. Ahalegina egin dut, behintzat, txikitasunaren kapitala azpimarratzeko. Intimotasunetik, nitasun indibidualetik jardun dut, baina, aldi berean, bai gure modukoekin bai zeharo bestelakoak direnekin ere konektatzera eraman gaitzake-

"Nik ere nahiko nuke beti zeharo berri eta diferentea egin poema, baina horretarako balio izan behar da".

ten bizikizunak, eguneroko gauza txikiak ekartzera, izan maitasuna, izan lana... Jende artean galtzeko dei bat ere bada atal hau, eta liburua.

Oraintxe esan duzu: zenbat jende zure *Kapital publikoa*-n. Jendez beterik dago liburua!

Baita azala bera ere! [Xabier Gantzarainek egin] Jende aurrean esan nahi dut nire kapitala, liburura dator, publiko egin nahi dut. Esan egin nahi dut zuek zaituztedala inportanteak, zer inporta zaidan esan nahi dut, eta esaten ari naiz. Izenburutik ere oso gertu izan dut jendea. Badago dei bat, aldarrikapena nahi baduzu: "Galdu gaitzen jende artean. Zerbaitek egingo bagaitu, jendarteak egingo gaitu!".

Gogoan dut liburu honetako poema bat irakurtzen ari eta neure buruari hots egin niola: "Lur bat zure minari!". Zenbat dago liburu honetan, lehengo lanetan ibilitako gogo eta minetatik?

Ez dakit, bada. Uste dut haietatik asko egon behar duela, baina ez dut neure burua gauza ikusten gaiak-eta zeharo aldatzeko. Kezka bertsuek mugitzen naute beti, eta ahalegintzen naiz garaian garaiko janzkera poetikoa ematen. Horrexek ematen dizkit lanik handienak, behin eta berriro liburu berdina ez egiteko. Hortxe ikusten dut nik krisi arriskua, eta horixe da hainbeste denbora argitaratu gabe egoteko arrazoietakoa bat. Bat, behintzat. "Lehengo arnasa bazegok hemen!". Bai, baina noiz lagatzen dio lehengo izateari, eta noiz hasten da beste aire bat hartzen? Bada, ondotik baten batek esaten duenean: "Hi, hemen bazegok beste ziri bat, lehengoan ageri ez dena!". Orduan, hari tiratu! Bestela, nik esango nuke bai *Lur bat zure minari* liburu-ko oihartzunak, bai lehenagokoak ere, ageri direla liburu honetan. Baina poemaren egikerari edo taxuari begira, egia da *Lur bat*-ek inflexio puntu bat markatzen duela nire bidean. Haiekin zorretan dago hau, dudarik gabe. Nik ere nahiko nuke beti zeharo berri eta diferentea egin poema, baina horretarako balio izan behar da! Askotan jardun dugu esaten, zenbateraino idazten dugu nahi duguna? Datorrena idazten dugu, eta datorren horretan jokatzeko dagokigu. "Hatorren bezala ez haut aterako!", ez, baina hortik asko dago!

Denbora kristalezkoa da oraindik, harako poema hartan idatzi zenuen moduan?

Bai, dudarik gabe. Oso-oso hauskorra, oso-oso gardena, ikusteko gauza denarentzat, eta argialdia baldin badago! Ze, bistakoa da denok argi bila gabiltzana, baina ez dago erraz! ■



Kultur bitartekaritza helburu

Artea eta Hezkuntza gutxitan doaz elkarrekin. Bi arloen arteko bitartekaritza lana egiten duen elkarte edo eragile gutxi dago gurean, nahiz eta hemendik kanpo gero eta ohikoagoa den. Duela 7 urte sortu zen Artaziak elkarte, Ana Revuelta, Maider Urrutia, Amaia Nabaskues eta Andrea Arrizabalagaren ekimenez. Egungo arte ekoizpenaren eta hezkuntza arautuaren arteko artikulazioa dute helburu.

| MYRIAM GARZIA |

HALAXE AZALDU DIGU Ana Revueltak, Artaziak elkartearen kideak: “Gurea kultur bitartekaritza lana da, apur bat definigaitza da berez, baina esango nuke heziketa prozesuak garatzen saiatzen garela, eta horretarako kultura eta artea ditugula abiapuntu edo ardatz. Artea, modu zabalean ulertuta: arte biziak, plastikoak, ikus-entzunezkoak...”. Gaur egungo kultur ekoizpenean murgildurik, arteak hezkuntzara jauzi egin dezan, eta alderantziz, hezkuntza artearen bidez garatu dadin egiten dute ahalegina lau emakumeok.

Haien lan-eremu naturala hezkuntza arautuko eskolak badira ere, kultur artekaritza lanak ere egin dituzte museoetan, Gasteizko Montehermoson adibidez. “Hezkuntzan parte hartzen duten eragileekin aritzen gara elkarlanean, eraikuntza moduan ulertzen dugulako hezkuntza”, dio Maider Urrutiak.

Gorputza eta Performancea Arte Hezkuntzan tailerra, Bilboko Alondegian.

“Ikasleen jakintzak artelanaren edukian edo esanahietan nola eragiten duen eta zein ekarpen egiten duten ulertzea garrantzitsua da”, jarraitu du Revueltak. Hau da, Arteak eta Hezkuntzak elkar elika dezaketela uste dute Artaziak elkartearen lagunek.

Kultur artekaritza, lan ezezaguna

Atzerrian ohikoak omen dira hizpide dugun honen tankerako elkarteak. Hemen, aldiz, hasiberriak gara. Artea gutxitan sartzen da hezkuntza prozesuetan, “nahiz eta currículumak egokiak izan, errealitatea bestelakoa da”, zehaztu du Revueltak: “Orokorrean, hezkuntza sistema oso modu tradizionalan dago enfokatuta”.

Artea pentsatzeko eta hausnarketarako tresna egokia dela uste dute elkartearen kideek. “kultur edo arte praktikak oso erabilgarriak dira gauzak ikasteko, beste gai batzuk tratatzeko eta tratamendu modu berriak bilatzeko. Arteak ahalegin hori eskatzen du, ariketa gogoetatsua, sortzailea, kritikoa edo eraldatzailea”, Revueltaren hitzetan.

Ildo honetatik, Bilbao Antzerki Dantza (BAD) jaialdiarekin lan egin dute hiru urtez, eta bitartekaritza aritu dira jaialdiaren eta Ibarrekolandako Arte Eszenikoen batxillergoa egiten ari diren ikasleen artean. Donostiko Tabakaleran, berriaz, hezkuntza programa daramate Trasductores taldearekin eta Leire San Martinekin batera, Hazitegiak ekimenaren bidez.



Artaziak elkarteak batik bat Hezkuntzan eta Artean lan egiten badu ere, kultur bitartekaritza era askotan uler daiteke berez. “Edozein espazio jendearekin harremanetan jartzeko orduan, kanpokoarekin nola elikatu edo zer eskeini jakin nahi denean, elkarrizketa hori eragiteko orduan, hain zuzen, hasten da gure lana”, Revueltaren esanetan.

Hala ere, arte heziketa eta beste eremu batzuk lotzea ez da erraza izaten: “Erronka polita da, baina nahiko latza askotan, kultur artekaritza ez delako behar bezala baloratzen. Kontzeptua ezaguna da dagoeneko munduko hainbat tokitan. Euskal Herrian, berriz, lan ezezaguna da guztiz, askotan azalpenak eman behar izaten ditugu egiten dugunaz”.

Baina kulturak kultura gehiago dakar. “Garatzen ditugun arte hezkuntza proiektuetan kultura sortzen da, gure ekimena kultur ekoizpen moduan uler daiteke, ikerketa bat gauzatu eta ezagutza sortzen delako”, dio Ana Revueltak. Sortze prozesuek duten garrantzia, prozesuari berari garrantzia ematea,

lehenesten du Artaziak taldeak, “hezkuntzarako programak egitean, gauza txikiei balioa emanez edo ikusten ez dena agerian utziz”.

Gorputza eta performancea

Duela gutxi, *Gorputza eta Performancea Arte Hezkuntzan* tailerra egin zuten Bilboko Alondégian. Gorputz mugimenduaren mundutik datoz elkarteko kideak, “eta alor horretan

gustura sentitzen gara”, dio Maider Urrutiak. “Gorputzaren gaineko hausnarketa egitea da gure proposamena, eta zerbait adierazterakoan, gorputzaren bidez egitea dugu gogoko”. Zentzu horretan, *Gorputz Transbertsalak* izeneko programa ere badute eskaintzeko.

Lana burutzeko areto falta sumatzen dute lau sortzaileok: “Gorputzaren inguruko iker-

keta bat egin nahi genuke, Arte biziak programatzen diren tokietan bitartekaritza lana egitea gustatuko litzaike, hemen ez baitago horrelakorik, ez dago antzoki bat bera ere hezkuntza programarik baduenik”. ■



Gorputz Transbertsalak izeneko programa eskaintzen du Artaziak elkarteak.



VITORIA GASTEIZ
green capital



euskara, zure frekuentzian

euskaraz, sortu, elkartu, mintzatu, jolastu, aritu,
ikasi, parte hartu, gozatu, bizi...



OIHANEDER EUSKARAREN ETXEA
GASTEIZKO KAFE ANTZOKIA

Unte berri on!



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Literatura | POESIA

Su zelaiak.
Mikel Peruarena
Susa, 2014



49.aren kronikak

SU ZELAIK izena du Mikel Peruarenaren bigarren eleberriak. Izenburuan ez da misteriorik ez joko literario-rik, existitu zen ezin egiazko errealtate bat baino. Su zelai hauek “alemanen eta frantsesen arteko No mand’s land” (85. or.) eremua dira, non ez den “ez oterik, ez iratzerik, ez deus. Lurra, harriak eta lohia baizik ez, guzia kainoi ukaldika itzulipurdikatua eta zulatua, lohi, putzu handiekin arteka” (85. or.).

1914. urtean kokatzen gaitu eleberriak, “sarraskien aroa inauguratu” zen urtean hain zuzen ere. Horrela baieztatzen du lehen partea abiatzen duen Eric Hobsbawnen aipuak. Baiona eta ingurueta 21-48 urte bitarteko gizonen Infanteriako 49. Erreximenduko konpainian aurkezteko agindua jaso dute. “Baiones zintzo orok nahi duen gisaz, Frantziaren alde hiltzeko” (61.or.) ordua heldu zaie eta beraz, denek bat eginik, ez da gehio xuri-gorri bereizketarik. Horien artean topatzen dira narrazioan zehar hurbi-letik ezagutuko ditugun zenbait pertsonaia: Etien Bonnat, Manex Donetx, Battitta Garat eta Filipe Luro, poliki-poliki bidean galduko direnak.

49. erreximenduaren ibilerarekin soldaduek bizi duten gerraren krudelkeria, miseria, gosea, hotza, traizioa, gorpu txikituak eta abar gordinki deskribatzen dira, Jacques Tardiren ilustrazioak gogora ekarritik. Verdun, “etenik gabe aitzinatzen eta gibelatzen

den su infinitu bat” (167. or.) astebetean 158 lagun-
nen heriotza eragin zuena. Argona, Verdunetik bizi-
rik atera direnentzat gerraren antzik ez duten joste-
tak dira bertako suak, Craonneko bataila eta,
noizean behin, hatsa berreskuratzeko Bienville ize-
neko ingurua, su lerrotik urrun dagoena.

Funtsean, gerraren egunekoaren kronika da Perua-
renak eskaini duena. Euskal literaturan ohikoa ez den
gerra bati heltzea izan daiteke idazlearen ekarpen
azpimarragarria, baina hortaz gairik ez diot deus
berezirik aurkitu. Bestalde, Ipar Euskal Herriko ere-
muan txertatutako narrazioa izanik ulergarria da
nafar-lapurteran idatzi izana, baina sinesgarritasun
maila aldetik onuragarria bada ere, ohituta ez dagoe-
nari irakurketa astuna suerta dakioko.

Pasarte interesgarriak ere aurkitzen ditugu, eszena
patetiko eta izugarri bortitzak deskribatzen dituzte-
nak. Hala nola, frantses eta aleman bat gorpu xehetu
baten aurrean aurkitzen direnean eta, sufritu dituen
mutillazioei erreparatuta, zein alderdiri dagokion gor-
pua lurperatzea erabaki behar dutenean. Azkenik, ale-
manak paper bat luzatuko dio frantsesari bere helbi-
dearekin, “nehoiz gerla bururatuko
balitz, Alemaniarat behar zitzaiola bisi-
tan joan” (89. or.) gaineratuz. ■

Saioa Ruiz



1.711

Enpresa berri

Zuri esker
1.711 enpresa berri sortu dira Gipuzkoan.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Haize bolada bortitzak

IZEBERG taldearen kantuetan rock and rolla da nagusi, rock bortitza. Erritmo azkarrak eta denbora erdikoak jotzen dituzte, bizitasunez. Gitarra riff eta punteo basatiak nonahi ageri dira. Taldekideek indar handiz jotzen dute eta Ixak abeslariak ere indartsu kantatzen du. Ekaitza nagusi izan arren, barealdia tarteka ageri da, eta melodia polit batzuk ere entzun daitezke.

Oro har, haien sentipenen, gogoeten eta zalantza existentzialen gainean kantatzen dute, baina hainbat kantutan protesta ere egiten dute. Hainbat kantutako hitzak Beñat Gaztelumendi, Jon Martin eta Xamoa bertsolariek idatzi dizkiete.

Azalera haien lehen diskoan doinu trinkoa eta potoloa gauzatu dute. Ixak Arruti (gitarra eta ahotsa), Jokin Irastorza (bateria), Beñat Urteaga (baxua) eta Antton Aranburu (gitarra) taldekideek beren musika tresnak erabiltzen oso ondo dakite, eta grabazioa egiteko garaian Arkaitz Carrasco eta Haritz Harreguy teknikarien laguntza estimagarria izan dute. Masterizazioa Juan Hídalgo egin die eta Erika Renedo arduratu da diskoaren diseinuaz. Denen artean ekoizpen lana ederki egin dute.

Izeberg taldea Usurbilgoa (Gipuzkoa) da. Taldekideek beraiek honela aurkeztu dute taldea: “Norberaren taldeko iparrorratza aldatu eta estilo berri bati ekinda, Mendeku Itxua, Hotzikara eta Odolaren Mintzoa taldeetako izotz zatietatik osatu zen Izeberg 2013ko martxoan. Izeberga bultzatzen zuten korronteak elkartu eta eskukada bat kantatu ditugun honetan dator Izebergen lehen lana, *Azalera*. Doinu gaziak eta melodia gozoak nahastuz, ea zer topatzen dugun musikaren itsaso zabalean”.

Jendaurreko emanaldi piloa eta txalo ugari. “Maiatzean hasi eta hogeitaz kontzertu bata bestearen atzetik egin ditugu; abuztuaren etentxo bat egin, baina, hala ere, batez beste astean kontzertu bat egin dugu”, Antton Aranbururen hitzetan. Gelditu gabe ari dira. “Alde horretatik oso gustura gaude”.

Esan bezala, Mendeku Itxua, Hotzikara eta Odolaren Mintzoa taldeetako hainbat kidek sortu dute



Azalera. Izeberg
Autoekoizpena, 2014.

Izeberg, bide berri bati ekiteko asmoz. “Egia esan, guretzat oso gauza berria da. Ixak Mendeku Itxua heavy metal taldeetik dator, Beñat eta ni Hotzikara taldekoak gara eta trashcore bezala sailkatu izan gaituzte, eta Jokinen Odolaren Mintzoa taldeak jotzen duena da agian Izeberg taldearen estilora gehien hurbiltzen dena. Zerbait desberdina egiteko elkartu ginen, eta diskoan entzuten dena atera zaigu”.

Rock indartsua. Egur latza. “Ez dakit nola deitu guk egiten dugunari. Argi dago gure aurreko taldeen eraginak ditugula. Egia da gure kantuetan zati batzuk indartsuak direla, eta beste batzuk melodikoagoak edo leunxeagoak, baina argi dago gurea ez dela pop-rocka”.

Doinua ondo landu dute. Grabazioa txukun eta ganoraz egitea zen beren asmoa. “Apustu nahiko serioa egin genuen. Hasteko maketatxo bat egin baino gehiago, disko biribil bat osatu nahi genuen. Urte batzuk badaramatzagu honetan, eta, nolabait esateko, ez gaude denbora galtzeko. Estudioan ondo grabatzea erabaki genuen, eta alde horretatik oso pozik gaude”.



Izeberg taldeak indartsu ekin dio bere bideari, eta horrela jarraitzeko asmoa du, jadanik bigarren diskoa prestatzen ari baita. Eutsi horri! ■



Joxi Ubeda

Puzzlea

Koka ezazu pieza bakoitza dagokion tokian eta Maddalen Arzallusek esandako esaldi bat irakurriko duzu.



Sudokuak

Erraza


			5		7	6	3
	7		8		1	4	
			9			2	5
5	2			7		8	
1	8	6	4	5	9	3	7
	9		6			1	2
7	5			8			
	6	2		9		5	
9	1	8	4				

Zaila

		3	4				6
					1		
	2			6	1	5	
2	9		4	7			3
	7					5	
5			6	2		4	7
		6	9	1			7
		7					
1				5	3		

5x5

Zeharretara eta goitik behera, hitz bera.



- 1.-Mahatsondoaren adar.
- 2.-Igitatzea.
- 3.-Bizitzarik gabe.
- 4.-Moral.
- 5.-Ekartzen nau.

Kike Amonarrizen umorea

Hanka sartzeak



Ezkontza batean gertatua. Bazkaria amaitu eta jendea dantzan hasi da. Mikel bakarrik geratu da eta batera eta bestera ari da edalontzia eskuetan. Bat-batean estropezu egin du dantzariari begira dagoen neska txiki batekin. Barkamena eskatu, hiru pauso aurrera egin eta gertatutakoaz jabetu den ezagun bati:

— Ohartu zara? Ze haur itsusia!

- Aizu! Nire alaba da! —erantzun dio aztoratuta ezagunak.
- Barkatu. Ez nekien bere aita zinenik.
- Ez, bere ama naiz.
- Glups! —zer esan ez zekiela—. Egia! Oraindik gogoan daukat haurdun zeundela behin nola topatu ginen kale nagusian!
- Adoptatua da.
- Hobe hemendik banoa...

Soluzioak

Erraza

2	7	5	8	3	6	1	4	9
6	3	1	9	7	4	8	2	5
5	2	3	1	9	7	4	8	2
1	8	6	4	2	5	9	3	7
4	9	7	6	8	3	5	1	2
7	5	4	3	6	8	2	9	1
3	6	2	7	1	9	4	8	5
9	1	8	5	4	2	3	1	7

Zaila

9	1	3	4	5	8	7	2	6
6	4	3	7	9	2	1	5	8
7	2	8	3	6	1	5	4	9
3	7	4	1	8	9	6	5	2
5	8	1	6	2	3	4	9	7
4	5	7	2	3	6	9	8	1
1	9	3	8	7	5	3	6	4

Puzzlea:

“Aitak txikitatik kantatu izan dizkigu bertsoak. Gogoan dut bertso saioak entzuterako joaten ginela, aitaren Nafarroako Txapelketako saioak esaterako”.

5x5:

1. Aihen.
2. Igitia.
3. Hilik.
4. Etik.
5. Nakar.



Diputació de Lleida
Patronat de Turisme

El urraren lurraldetik haratago...

KULTURA

Baqueira Beret
Boí Taüll Resort
Port del Comte
Espot Esquí
Port Ainé
Tavascan
Tuixent-La Vansa
Viros-Vall Ferrera
Aransa
Lles de Cerdanya
Sant Joan de l'Erm

APP BERRIA
aralleida365
aralleida.com

Parte hartu lehiaketan
#nieve1415
aralleida.com/concursonieve



KORSIKA

Mendien uhartea

Asterix garaiezinak orain bi milurtekoko Korsikara eraman gintuen, beste herri menderaezin bat ezagutzeko. Gaur egun, ohiko topiko baldarrak errepikatzeko asmorik ez badugu ere, iruditzen zaigu bertako herritar askok agertzen duten harrotasuna eta nortasun menderakaitza bizitza bera bezain benetakoa dela, eta hein handi batean leku eder eta basa honen orografia malkartsuak eragin duela.

| LUIS DÍAZ / VISUALNATURA |

Argazkiak: Jorge López / Visualnatura

ESAN DAITEKE, geologiari buruzko xehetasunetan murgildu gabe, Korsika Mediterraneo itsasoaren erdian jarritako Alpeen zati bat izan litekeela, inguruan hondartza eta labar ugari daukana, eta barnealdean, berriz,

kontinenteko haran alpinoak gogoraziko dizkiguten mendi garai eta basoak. Izan ere, Errestonikako haranen batean jarriko bagintuzte non gauden jakin gabe, zin egingo genuke Alpeetako txokoren batean gaudela.

Mendilerro ikusgarri batek zeharkatzen du uhartea ipar-mendebaldetik hego-ekialdera. Itsas mailatik 2.000 metro baino gorago dauden ehun gailur baino gehiago dago; urteko sasoi gehienetan elurrez esta-

Cinto mendiaren ikuspegia.





Santa Mariako dorre genovarra, Corse lurmuturrean.

lita egoten den Cinto mendiaren 2.706 metroak nabarmentzen dira. Itsasertzetik 30 kilometro baino gutxiagora dago Cinto. Distantzia horren eta haren altueraren arteko erlazioak erakusten digu zein bertikala den Mediterraneo erdiko mendikate hau.

Orografia bihurriak etengabe baldintzatu du uhartearen historia. Ipar-ekialdea eta hego-mendebaldea askotan elkarrekiko inkomunikatuta geratzen ziren elurte handien ondorioz; batzuetan haran batetik betera igarotzea ere ezinezkoa zen. Lan gogorra inbaditzaileentzat. Korsikarrak mendi inguruetan bizi ziren batez ere, nahiago zituzten horiek kostaldea baino, eta mende askoan gerrilla bidez oldartu zitzaizkien beraiek baino boteretsuagoak ziren ejertzitoei. Baina alde batetik beren nortasunari eusteko balio izan zuena, jaiotza kopurua txikia izatea eta korsikarren arteko zatiketa areagotzea eragin zuen bestetik. Bereizketa horrek muga ideologiko, sozial eta, ezinbestean, linguistikoak sortu zituen.

Hamaika inbasio

Korsikako historia nahasia eta bitxia izan da. Haren ondorioz, nazio nortasun sendoa eta independentzia nahi irmoa garatu da bertakoengan. Irlaren kokagune estrategikoak herri askoren arreta piztu zuen; ia hiru milurtekoan, feniziarrek, greziarrek, erromatarrek, bandaloak, bizantziarrek, pisarrak, aragoiarrak, genovatarrek eta, 1768tik, frantziarrek uharteaz jabetu ziren, inbasio eta inbasio artean autonomia eta independentzia tarte laburrak utzita bertakoei.

Gaur egun Korsikak beste inbasio bat jasaten du, ez hain liskarzalea, lurraldea bereganatu ordez egun edo aste batzuetako bisita egiteko asmoa baino ez duena. Uhartearen diru-sarrera iturri nagusia da turismoa,

Gaur egun Korsikak beste inbasio bat jasaten du, lurraldea bereganatu ordez egun edo aste batzuetako bisita egiteko asmoa besterik ez duena

izan ere. Eta handiagoa izango litza-teke bisitak hartzeko azpiegiturak hain mugatuak ez balira. Oso litekeena da horrek, kalte egin baino, onura ekartzea epe luzean, bertako natura asko hondatzea eragotziko baitu, eta zalantzarik gabe horixe bera da, natura, kanpotarrei eskaintzeko Korsikak daukan balore nagusia.

Itsasotik arroiletara, urrats bat baino ez

Muturrak harrigarriak dira Korsikan. Ezin zaitezke aldendu 40 kilometro baino gehiago Mediterraneo epeleko hondartzetatik, baina tarte hori nahikoa da naturan hamaika jarduera, askotarikoak, egin ahal izateko. Ghisoni, Vergio edo Val D'ese-ko pistentan eski egun bat negu gorrian, uharte iparretik hegora zeharkatzen duen GR-20 ibilbidean barnako mendi txango gogorrek, arroila jaitsiera kirol horretarako Europan dauden lekurik interesgarrienetako zenbaitetan, eta beste asko, hala nola urpekaritza eta bestelako ur jarduerak. Kulturaz edota mediterranear klimaz gozatzeko aukera ere badela kontuan hartu-



Goian, ezkerrean: Camera herrixka, Corse lurmuturreko mendebaldeko itsasertz menditsuan. Eskuman: Calvi hiriko hondartza, atzean gotorlekua ikusten delarik. Lerro hauen ezkerrean, Zagliako zubi genovatarra, Speluncako arroiletan.

ta, era askotako turismorako gune ezin hobea da Korsika.

Bastia, hiririk korsikarrena

Uhartera sartzeko lekuri onena Bastia da, ipar-ekialdeko erdiko hiriburua, eta Korsikako itsasertzeko hirien artean berezia. Oso agerikoa da Genovaren eragina, bai arkitekturan bai kaleen saretzean. Korsikar kostaldeko hiririk “benetakoa” da Bastia, zalantzarik gabe; ez da ahaztu behar itsasertzeko hiri handienak inbaditzaileek eraikitakoak direla. Bastia ez da beste hiri batzuk —esaterako, Ajaccio— bezain arranditsua, baina uharte osoko porturik jatorrena dauka: kafetegi ugarien artean, ainguratutako belaontziei so paseatzen duten jubilatutako arrantza-leak nonahi dabilta bertan.

Bastiatik Korsikaren iparraldera irits gaitezke. Populazio txikieneko eskualdea da, eguraldiaren zabarkeriaren aurrean babes txikiagoa duelako. Hiritik abiatzen den errepide bihurtutako batek aukera ematen du Corse lurmuturra dagoen penintsula osorik ingura-

Sortaldeko kostalde labartsua

Uhartearen ekialdea are malkartsuagoa da, baita ikusgarriagoa ere. Labarrak itsasoan murgiltzen dira, eta han-hemen mediterraneaz izaera agerikoa duten arrantza-lekuek aurkitzen ditugu. Errepide horretatik Agriates-eko kostaldean sartuko gara: babestutako 40 kilometroko itsasbazterra, eskualdeko altxor natural handienetako bat.

Sortaldeko itsasertzari jarraituz, iparreko senaia ezkutuekin zerikusirik ez duten hondartza luzeak ikusiko ditugu. Hala ere, kostalde mediterranearreko leku askok jasan duten higiezen boom-a ez da honaino iritsi, ez behintzat hain neurri handian. Horri esker, gune askotan aukera dago errepidetik irten eta jendetza handi batekin

tzeko. Ehunka senaia txiki ezkutu gordetzen dituzten amildegik usgarrien ertzetik, dorre genovatarrez jositako lurmuturrera hel daiteke.

topo egin gabe hondartzetara gerturatzeko, baita udan ere.

Kostalde horretatik bertatik uhartearen barnealdera joan daiteke, zenbait mendate esanguratsu gaindituz. Eskualde berezia da hau, baso handiek estalitakoa. Gaztainondoa da nagusi, eta hartatik hartu du izena Gastagnicciak, gaztainaren inguruan bizi den eskualdeak; hango negozioetan zein gastronomian ohorezko lekua du fruitu horrek. Bailara hau bisitatuz irlako historiaren zati garrantzitsu batean murgilduko gara, Pasquale Paolik, Korsikaren independentziaren defendatzaile nagusietako batek, bertan utzi baitzuen bere oinordetzaren zati handi bat.

Uhartearen bizkarrezurretik hegoalderantz joz, Corte hiria aurkituko dugu. Korsikako benetako bihotza, mendiz inguratua eta Restonica eta Tavignano ibaiek bat egiten duten lekuan kokatua. Corte izan zen Korsika independenteko hiriburua Paoliren gobernuak iraun zuen bitartean, 1755 eta 1769 artean. Urte hartan, frantziarrek mendean hartu zituzten korsikar osteak, Pontenuovoko guduan.

Restonicako Arroilak

Corte pribilegiozko toki batean dago: Restonica ibaiaren ibilguari jarraituz, uharteko mendi malkartsu eta ikusgarrien bihotzean sartuko gara. Mendiko ibai honen hamalau kilometroetatik, gehienak Restonicako Arroilen barruan

Kostalde mediterranearreko leku askok jasan duten higiezen boom-a ez da honaino iritsi, ez behintzat hain neurri handian



Mediterraneoaren gaineko kokagune miresgarri batean dago Bonifaccio, uhartearen hego muturreko hiria.

daude; ur-jauzi ugari dago bertan. Ibaiak 1.300eko altuera galtzen du ibilbide horretan, eta haren uharkak Korsikako haran eder eta basatiena sortu du. Korsikar mendien sargunea izanik, urtero jasotzen du milaka lagun bista; lasai paseatzera joaten dira batzuk, mendi kirol zorabiagariak egitera beste batzuk.

Itsasertzerantz berriro, uhartea

zatiekatzen duen mendikatea zeharkatuko dugu Korsikako hego-mendebaldearen hiriburura, Ajacciora, joateko. Atzean utziko ditugu hiritik ikus daitezkeen mendi garaiak, neguan irudi bitxia eskaintzen dutenak: Mediterraneoaren gaineko zerumuga elurtua. Kaleek, monumentuek, estatuek, etengabe gogorazten dute Napoleon Bonaparte

enperadorea izango zena Ajaccion jaio zela 1769ko abuztuaren 15ean, frantziarrek uhartea behin betiko bereganatu zuten urtean.

Bonifaccio, hego muturra

Hegoaldeko muturrerantz goazela, paisaia alpinoak atzean utzi eta mediterranean izaera nabarmena duen ingurua zeharkatuz, Popiano eta Sartène-tik igaroko gara Bonifacciora heldu arte. Mediterraneoaren gaineko kokagune miresgarri batean dago hiria, labar luze baten goialde; izen bereko itsasartea zeharo edo ikusten da hemendik. Bonifaccioko begiratik erraz hautematen dira Madalenako artxipelagoa eta Sardiniako uhartea, eta arratsalde eguzkitsuetan, itsasartea zeharkatzen duten izurde saldoak ikus daitezke hiri-ko harresietatik. ■



Bisitatatu
Ihesi.com,
aisialdirako
webgune parte-
hartzailea.

Ontzi arinak ondo bereizteko zenbait gomendio



Karbono monoxidoa, etxe barruko hiltzailea

NEGUA ETORRI AHALA gero eta maizago pizten ditugu etxeko berogailuak. Abendutik maiatzera bitartean su eta ke arituko dira gure galdarak gasa erretzen, eta denbora tarte horretan behin baino gehiagotan izango dugu karbono monoxidoaren eraginez gertatutako ezbeharren berri.

Karbono monoxidoa, CO, gas garden da, usain gabea eta airearen dentsitate berekoa gutxi gorabehera. Normalki erregai baten (egurra, ikatza, butanoa, gasolioa, fuela...) errekontza partzialaren ondorioz sortzen da, eta oso ondorio larriak izan ditzake, hemoglobinan eta proteinetan finkatu eta zelulak kutsatzen ditu eta. Arnasten dugun airean CO kontzentrazioa %0,1 baino handiagoa bada ordubetea hil gaitezke; %1 baino handiagoa bada, 15 minutuan; eta %10 baino handiagoa bada heriotza berehalakoa izan daiteke.

Lerro hauen bidez urteroko aholkuak gogora ekarriko ditugu: hotz sasoi hastean galdarak, tximiniak eta aireztatze hobiak errebisatzea, egunero etxea gutxienez hamar minutuz aireztatzea eta airearen zirkulazioa ez oztopatzea. Eta ez ahaztu, istripua izatekotan, laguntza eskatzeaz batera ingurua aireztatu behar dela. ■



Bridgmanita, Lurreko mineralik ugariena

Lurreko mineralik ugariena ez dago lurrazalean, oso sakonean baizik. Bridgmanita jarri berri diote izena eta magnesio silikato mota bat da. Mantuan dago, 670 eta 2.900 kilometro bitarteko sakoneran, eta haren bolumenaren erdia betetzen du gutxi gorabehera. Orintsu arte minerala ezin izan da aztertu eta horregatik ez diote izenik eman. Azkenean, meteorito batean aurkitutako lagina aztertu dute.

ttiki.com/133038
(Gaztelaniaz)

Lezetxikiko giza hezurra, Iberiar penintsulako zaharrena Atapuercakoa eta gero

Lezetxikin aurkitutako giza humeroak 160.000 urte inguru ditu, Australiako Unibertsitateak egindako azterketa baten arabera. Momentuz antzinatasuna baino ez dute finkatu; orain, sexua eta beste fosil batzuekin izan dezakeen harreman genetikoak aztertu nahi dute.

ttiki.com/133040
(Euskaraz)

Ozonoaren arriskua

Atmosferako goi aldeko ozonoak eguzkiko izpi ultramoreetatik babesten gaituen bezala, behean dagoena, arnastu dezakeguna, kaltegarria da. AEBetan egindako ikerketa baten arabera, beroketa globalak eragin lezake gas horren kontzentrazioa handiegia izatea hamarkada batzuk barru.

ttiki.com/133042
(Gaztelaniaz)

Saturnoko eraztunen jatorriaz beste bi hipotesi

NASA



IKERLARIAK aspalditik ari dira Saturnoko eraztun ederren jatorria ikertzen. Hipotesi bat baino gehiago eman da, baina ez-ezagutza gailendu da orain arte. Berriki, Nizako behategi bateko ikerlariek bi hipotesi plazaratu dituzte. Baten arabera, Neptunotik haratago zegoen objektu handi batek Satur-

noko izotz geruza jo eta milioika puskatan txikitzean sortu ziren eraztunak. Beste hipotesiak dio Saturnotik hurbil samar zegoen izotzezko satellite batek planeta jo ondoren barreiatutako milioika puskez osatuta daudela eraztunak. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

ideia batetik errealitatera

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16

5.000.000.000.000

BOST BILIOI zigarro mutxikin sortzen da urtero, zenbaitek hala dio. Gure planetarako 850 milioi kilo zabor. Horixe bai zaborra, erreuxa! Gehienak material sintetikoz eginak dira: zelulosa monoazetatoa, polibinilo azetatoa, titanio dioxidoa, triazetina, polietilenoa... Mutxikin horiek, batez beste, hamabost urte inguru behar dute desegiteko. Ameriketako Estatu Batuetan itsasertzean eta ibaietan aurkitutako hondakinen %30 mutxikina da. Komuneko zulotik behera edo nonahi botatzeko ohiturak mutxikin horiek ur bazterretan pilatzea dakar. Ura luzez kutsatuko dute mutxikinak pixkanaka askatuko dituen nikotinak, bentzenoak, kadmioak eta abarrek.



Arazo horri buelta eman beharraren aitzakia hartuta negozioa egin nahi duenik ere bada. Bejondeiola. Material sintetikoak erabili beharrean material naturalak baliatzea proposatzen du, dagoenerako, enpresa batek baino gehiagok. Hiru landareren

zuntzak darabiltzate: kotoia (*Gossypium* sp.), lihoa (*Linum usitatissimum*) eta kalamua (*Cannabis* sp.). Zuntz horiek hilabeteren buruan desegiten omen dira, eta lurraren ongarri bihurtu. Horiek ere izango dute nikotinarik eta keak garraiatutako gai txarrik, baina ez dituzte aipatzen.

Areago joan denik ere bada. Desegingo diren zuntz horien artean landare haziak sartuko omen dituzte. Mutxikina nonahi eta nolanahi botatzeko aitzakia ederra! Komun zulotik edo parkean edo mendian bota lasai, hilabete desegingo da eta haziak hortxe baliatuko dute hondakintxo hori ernatzeko. Mutxikina haziaren ongarri dosia. Beraz, lasai bota mendian ere zigarro punta, suak erretzen badu ere berritzeko hazia ematen diozu.

Negu-txilintxa (*Galanthus nivalis*) landarearen haziak dituztenak jarri nahi dizkiote Europa iparraldean. Erraz etorri eta lore zuri polita ematen du. Nik beste era bateko uzta dakarren hazia duena jarriko nuke salgai. Zigarreta biltzen duten horientzat egokia: kalamu hazia duena. Kalamua, baina ez zuntzak egiteko kalamuarena, *Cannabis sativa*. Erretzeko kalamuarena baizik, *Cannabis indica*. Non ibiltzen zaren, erre, mutxikinak bota eta konturatzeko landare berriak hor dituzu, hankapean ia, zain. Hurrengo txirriak biltzeko... ■



LANDAREAK • ERDIKO KAIERA



JAKOBA ERREKONDO

Erleak zirri

ETXEAN ETXEKO bezala erle eultzea izateak garai bateko bizimoduan erleak zuen garrantzia garbi asko adierazten du. Erlea nahi eta ezkoa zen fruitu batzuk jaso ahal izateko. Sagarra, adibidez, erleak ernaltzen du. Mahatsa ez, haizearen nahikeriara lotua dago. Ezti az eta argizariaz gain etxeko urteko edaria zegoen erleen esku: zizarra, pitarra eta sagardoa. Nola ez zuten ba eultzea zainduko? Etxekoa, familiakoa zen erlea. Argazkian, Aramaioko Olaetako Ubidenen baserriaren aurrealdean, sarrera nagusia eta leihoen artean, eultzea. Eultzera barrutik irits daiteke. ■

CALL ME MARIA OBSIDIANA Abenduak 27, 20:00	ORTZI ACOSTA Abenduak 29, 20:00
ENTREDOS CIA. CAPICUA TEATRO Abenduak 28, 20:00	POTTED LA TROCOLA CIRCO Abenduak 30, 20:00

Informazio gehiago: ☎ 943 30 35 40 · www.andoain.org

Azken erregea eta lehen arkeologoa

BABILONIA, K.A. 556. Labashi Marduk errege gaztea kargutik kendu ondoren, Nabonido tronuan eseri zen. Herodoto greziarra lehen historialaritzat jotzen den arren, haren aurretik Nabonidok ere iraganarekiko interes handia izan zuen. Indusketak egiteko agindua eman zuen gainbehera etorritako hiri sumeriar eta akadiarretan, eta horietako batzuetan berak parte hartu zuen zuzenean. Indusketa lan horietan aurkitutako erregeen eta jainkoen estatuak, testuak idatzita zituzten estelak eta bestelako materialak Babiloniara eramanez zituen.

Ustez, haren asmoa objektu horiek toki batean erakusgai jartzea eta herritarrek antzinako erregeen loria miretsi ahal izatea zen; egungo museo moduko bat eraikitzea, alegia. Horrez gain, errege-liburutegiko milaka taulatxoren kopiak egina-razi zituen. Erregealdi guztien kronikak gordetzeko obsesioa zuen eta horretarako hainbat tailer zabaldu eta idazlari mordoa bildu zituen.

Halaber, buztinezko eta betunezko nahasketa berezia asmatu zuen dokumentuak gehiago iraunarazteko. Horri esker Babiloniako errege liburutegia ia osorik iritsi zaigu.

Egungo arkeologoak ziurrenik hotzikarek hartuko lituzteke Nabonidoren indusketa metodologia ikusita; derrigorrezko informazioa bildu baino lehen objektuak testuingurutik ateratzea, esaterako, sakrilegioa da. Baina harengandik izan ez balitz, objektu asko eta bertan bildutako informazioa betiko galduak lirateke. Errege akadiarren berri, esaterako, ezer gutxi jakingo genuke.



BRITISH MUSEUM

Estela honetan Nabonidok errege babiloniarren jantzi tradizionala du soinean, eta zeremonia zetroa eskuetan. Alboan Sin, Ishtar eta Shamash jainkoen sinboloak ageri dira. Lehenaren kultura inposatzeagatik herritarren babesa galdu zuen Babiloniako azken erregeak.

Historiari egindako ekarpenak ekarpen, Nabonido agintari kaskarra izan zen. Hasteko, agintea lortzeko egindako bidea iluna izan zen eta klase boteredunarekin bat egin ordez, haien etsaitasuna irabazi zuen, bereziki apaizena. Marduk jainkoaren kultuaren nagusitasuna eten zuen eta haren ordez Sin ilargiaren jainkoa ipini zuen rankingaren lehen postuan. Horrenbestez, herri xeheak bat egin zuen boteredunekin erregearen aurka.

Halaber, huts larria egin zuen Pertsiaiko Ziro II.a Handiaren kontra Lidiako Kresorekin bat egitean. K.a. 539an Ziro Babiloniako atee- tan konkistarako prest zegoenean, edozein agintarik armada prestatu-ko zukeen erasoari aurre egiteko. Baina Nabonidok beste estrategia bat hautatu zuen: erresumako jain-koen estatuak hiriburuan bildu zituen, jainkozko batzorde hark ar- zoa konponduko ziolakoan. Herri- tarrak Nabonidoren aurka egonik eta harrizko armada alferrikako

harekin, Zioren osteek ez zuten gezi bat bera ere jaurti behar izan Babilonia mendean hartzeko, Bibliak konkis- ta gertaera ia apokaliptiko gisa deskribatu arren.

Herodotok dio Nabonido sutan erretzera kondenatu zutela baina azken unean Zioren barkamena eman ziola. Beste iturri batzuen arabera 539. urtean bertan exekutatuta zuten eta bertsio baikorrenak dio bere azken urteetan bizimodu lasaia izan zuela Karma- nian. Kontua da, azkenean, Nabonido Babi- loniako azken errege penagarri gisa igaro dela hainbeste maite zuen historiari. ■



Arrastoak

Lau milioi litroko ur biltegia antzinako Erroman



ERROMAKO METROAREN C linea eraikitze-ko lanetan, 35 x 70 metroko ur biltegia aurkitu dute. Ziurrenik nekazaritza enpresa baten laboreak ureztatzeko erabili zuten, baina inguruko ibai baten uraldiak geldiarazteko eraiki zutela dioten hipotesia ez dute baztertu. Aurkikuntzak garrantzia du, batetik, orain arte aurkitutako Antzi-

naroko ur biltegiarik handiena delako. Eta, bestetik, San Giovanni auzoan dagoelako; Erroman iraganeko arras- to faltarik egon ez arren, inguru horretan ez dira orain arte Antzinaro-ko egiturak aurkitu. Alde txarra ere badu, metroaren lanak atzeratuko direlako, baina horretan oso ohituta daude erromatarrak. ■

«Lehenengo presoen ongizatea dago, eta gero zu»

Espetxea tarteko duten bikote harremanak aztertu ditu Oihana Etxebarrietak (Hondarribia, 1987). Aurrez aurrekoak espetxetik irteteko une bakar moduan deskribatzen dituzte presoek, baina askatasun une bat al dira?

| IRATI SARASUA ARABAOLAZA |
Argazkiak: Dani Blanco

Zure tesinaren izena da: "Erlazio afektibo sexualak espetxe garaian askatasun (g)une? Hainbat euskal emakumeren esperientziak". Zergatik aukeratu zenuen gai hau?

Gaia aukeratzea oso sinplea izan zen. Nire bikotekidea, Ibai, 2009ko azaroaren 24an gazte mugimendua-
ren kontra egindako sarekadan atxi-
lotu zuten. Hortik aurrera bizitza
erabat aldatzen zaizu, eta espetxea
ezagutzen duzu. Ibai bost egun
inkomunikatuta egon ostean, tortu-
ratua izan ostean, espetxeratu egin
zuten. Ia hemeretzi hilabete pasatu
zituen espetxean. Egoera horren
aurrean bizipen eta sententzio berri
asko dituzu, baita lagun berri asko
ere. Bizitza beste modu batera anto-
latzen zaizu.

Niri gertatutakoa beste neska
gazteengan ere ikusten nuen.
Momentu batean agian obsesio
bilakatzen da, oso bortizki gerta-
tzen zaizulako, etengabe zaude
gaiari buruz hitz egiten, gaia kon-
partitzen. Nik une hartan asko hitz
egiten nuen gaiaz, behar nuen. Eta
masterra egitean argi izan nuen hain
modu desordenatuan landutakoa
ordenatzea izango zela nire lana.
Tesina egin baino lehen banuen
kontraste bat egina, eta gero hamar
pertsona elkarriketatu nituen.

Guneak eta uneak, elkarri lotutako bi
ideia dira?

Txanponaren bi aldeak dira. Bate-
tik, presoarengan bikote harrema-



nek nola eragiten duten aztertu nuen. Espetxetik burua ateratzeko aukera ematen dio presoari. Baina, aldi berean, aske sentitzeko behar guzti horiek bikotearengan zentratzeak eragin dezake harremana obsesio bilakatzea.

Bestalde, haren bikotea preso duen neska dago. Espetxealdia askatasun gune bilakatu daiteke, inoiz ez delako hain bakarrik egon. Neskei bikote harremanaz galdetutakoan konfiantza eta denbora ziren euren aipatutako ezaugarri nagusietako bi. Kasu honetan ezin du denbora asko pasatu pertsona horrekin. Beraz, inoiz baino denbora gehiago du beretzako, ingurukoekin egoteko. “Nire buruaz inoiz baino gehiago ikasi dudana momentua izan da”, zioten neskek. Orduan, bada ahal duntze prozesu bat oso askatzailea izan daitekeena. Baina bikotekidea zaintzaile gisa ulertzen dugu. Eta zaintza lan hauek ez dira askatasun gune bat, kontrakoa baizik.

Tesina egin nuenean ideia nagusietako bat bikotekidearengan ikusi nuen “ni”-aren galera deitzen diodana izan zen. Bat batean ez zara Oihana, Ibai preso politikoa-ren bikotekidea zara. Lehenengo presoaren ongizatea dago, bere senide eta lagunetik harremana, bere guztia, eta gero zu.

Preso dauden emakumeak eta presoaren bikotekide emakumeak. Bakoitzak zein paper jokatzan du bikote harremanean?

Oso paper ezberdinak dira. Presoaren bikotekideak oso paper garrantzitsua betetzen du, batez ere zaintza lanagatik. Eta batzuetan zaintza lan horiek beren gain hartu nahi ez izan arren berari ezartzen zaizkio. Maitasun adierazle gisa ulertzen dira; zenbat eta zaintza lan gehiago orduan eta gehiago maite du.

Horrez gain, emakume presoek bikote harremanetan zailtasun gehiago izaten dituzte. Emakumeek babesa emateko jarrera azaltzen dute. Bera kanpoan dago eta preso da bere ustez okerren dagoena, ondorioz, babes guztia beregan jartzen du. Eta preso bera denean, uste du kanpokoak bera baino okerrago daudela eta babestu egin behar dituela.

EPPKren inguruan sortu den sareak babesa ematen diela aipatu duzu, baina kontrolera jotzen duela ere bai.

Babesaren kudeaketa da azken batean. Nik pentsatu dezaket babesaren ari naizela eta agian kontrolera jo dut; hori da batzuetan gertatzen dena. Prozesuaren hasieran bikote harremana publiko egiten da, agian lehen inork ez zuen horren berri edo ez zuten bikote harremanaz hitz egiten, eta bat-batean denek esan dezakete zer den egokiena.

Emakumeek gizartearen ikuspegitik dugun zaintza rol horri lotuta asko estigmatizatzen da. Zaintza lan hori bere gain hartu nahi ez izatea ez da ulertzen. Batzuetan gertatzen da harremana egoera horretan gartu ezin dutela sentitzea, eta horregatik herritarrek epaitzea. Elkarrizketaturiko hainbatek esaten zidaten ez zela euren artean gertatutako zerbaitek eraginda, kontziente zirela espetxeak eragin zuela, baina horrela ezin zutela harremana garatu.

“Denek dakite zertara zoazen, larrua jotzera, badirudi hori egiten ez baduzu alferrik galdutako *vis a vis*-a izango dela. Baina, agian hitz egiteko beharra duzu, edo ordubete besarkatuta ezer esan gabe egotekoa. Baina iruditegi bat dago, eta horren arabera denbora galtzea litzateke”

Aldiz, gizona denean kanpoan dagoena ez da hainbeste estigmatizatzen. Normalean oso jatortzat dugu harremana aurrera eramaten duena. Eta bai, artista da, baina artistak dira espetxea tarteko harremana garatzen duten guztiak. Eta nesken kasuan hori inork ez du esaten.

Bestalde, oso gogorra da seme-alabak espetxean izatea, eta asko epaitzen da hori ere. Hiru urtera arte haurrak espetxean izateko aukera dute emakume presoek. Gaizki iruditzen zaigu hori, baina ama izatea erabaki eta haurra kanpora ateratzen duenaren kasua ere gaizki iruditzen zaigu.

Aurrez aurrekoak zer dira presoaren-tzako eta bikotekidearentzako?

Espetxe sistematik hasita gure lagunenganaino, aurrez aurreko intimoaren egitura oso zehaztuta dago. Espetxea zu gaizki eta zelatatuta sentitzera bideratuta dago; identitate eza eta zarata dira horren bi adibide. Eta preso politikoen kasuan, gainera, badakigu ez direla espazio intimoak nahiz eta horrela arautuak egon. Zaila da horrelako espazio arrotzera egokitzea. Batzuk aipatzen zidaten puta sentsazioa zutela; ez bikotekideagatik, egoeragatik baizik. Baina gainditzen da. Goxo pasatzen dituzun uneak izaten dira, hilabeteko politenetako batzuk. Baina sentsazioa gazi-gozoa da.

Gainera, denek dakite zertara zoazen, larrua jotzera, koitoa praktikatzen zera zoaz eta badirudi hori egiten ez baduzu alferrik galdutako *vis a vis*-a izango dela. Baina, agian hitz egiteko beharra duzu, edo ordubete besarkatuta ezer esan gabe egotekoa, agian negarrez. Baina iruditegi bat dago, eta horren arabera denbora galtzea litzateke. Eta aprobetxatzea bikotekideak behar duena egitea da. Batzuek esaten zidaten hasierako minutuak bakoitzak zer behar zuen esateko erabiltzen zituztela.

Sakabanaketak eta komunikazioan egoten diren kontrolek zein eragin dute harremanetan?

Askok eragiten dute. Sakabanaketak izugarritzko neke fisikoa eragiten du. Espetxeek ezartzen dizute ordutegia. Pentsa goizeko 9:00etan 400 km egin eta gero zein gogo duzun *vis a vis* intimo bat izateko. Frantziako estatuan proiektu pilotu batzuk egiten hasi dira, bungalow moduko batzuetan hasi dira aurrez aurrekoak antolatzen; 4 ordutik 48 ordura bitartekoak. Halere, halako proiektu bateko preso baten senideek esaten zuten lehenengo 24 orduetan aita lo hartzen zuela eta alabak esaten ziola: “Aita, ez lokartu, 24 ordu hauek aprobetxatu behar ditugu”. Denborari ematen diogun garrantziaren erakusle da.

Kontrolek ere izugarri eragiten dute. Elkarrizketatu nituen bikote asko militanteak ziren. Mugimendu sozialetan, gaztetxeetan... Han ezin da edozertaz hitz egin, beldurragatik.

Badakigu hemen politika dela zigortzen duten gauzetako bat. Horrek, adibidez, muga handiak sortzen ditu. Askotan bikote horiek militantzia elkartu ditu, behinik behin militantzia oso garrantzitsua da haientzat. Pentsa zer suposatzen duen horretaz hitz egin ezin izateak. Baldintzatzen du, hitz egiten duzun bakoitzean entzuten egongo direla pentsatzen baituzu.

Emakumearen sexualitatea espetxeak ikusezin bihurtu edo ezeztatzen duela diozu.

Bai. Pornoa da adibide on bat. Gizonezko espetxeetan ikusteko aukera dago, eta zenbait emakume espetxetan debekatzen hasi dira. Ulertzen dugu gizonezkoek behar sexualak izatea, baina emakumeek ez.

Orokorrean esango nuke sexualitatearen tabua handia dela denentzako, eta zentzu horretan garrantzitsua da kideekiko harremana. Emakumeen kasuan, esaterako, askoz onartuago dago elkarri eskadadak ematea, gizonen kasuan ez, eta garrantzitsua da.

Gero masturbazioaren kontua daukagu. Elkarriketatuta nituenak binaka egoten ziren espetxeko ziegan, ondorioz, intimitate galera handia dago. Esaten zidaten biluzik egoteko, beren burua begiratzeko, laztantzeko eta masturbatzeko aukera oso gutxi zutela.

Espetxetik irtetea beste prozesu bat hasten da. Zein zailtasun egoten dira bikote harremanean?

Oso gogorra da. Denbora tarte batean bikote harremana garatzeko modu konkretu bat eraman delako. Espetxea bizitzeko modu ezberdi-



“Emakumeek zaintza lana bere gain hartu nahi ez izatea ez da ulertzen. Batzuetan gertatzen da harremana egoera horretan ezin dutela garatu sentitzea, eta herritarrek horregatik epaitzea”.

nak daude; bateragarriak. Batetik dago orain aldiari bizitzea; beste batetik lehen aldiari eta etorkizuneari bizitzea; eta azkenik etorkizuneari pentsatzea beti. Batzuk etengabe bizi dira orain ez diren denboretan. Askotan pentsatzen dute espetxetik ateratakoan dena lehen bezala izango dela. Eta ez da inoiz hala izango. Nahiz eta espetxealdi txiki-txiki bat pasatu. Espetxeak aldatzen zaituelako, zu eta zure ingurua. Prozesua ez da espetxealdiarekin amaitzen.

Nire kasuan, adibidez, Ibai espetxean zegoenean, zer moduz generaman galdetzen zidaten, “ondo” erantzuten nien, egokitu ginela, “bai, ahal den neurrian ezta?” esaten zidaten. Eta gero kontrakoa. Espetxetik atera zenean, gaizki geundela erantzuten nuen eta “beno, baina amaitu da”

erantzuten zidaten. Eta ez da horrela. Niretzat oso prozesu gogorra izan da, biontzat, birmoldatu behar izan gara. Bi pertsona ezberdin ginen. Ez dut esan nahi guztientzat hala denik, baina argi izan behar dugu espetxealdia amaitzen dela, baina ondorioak landu behar direla.

Gainera, uste dut gatazka honen parte izan diren sentimenduak azaleratu behar direla, eta *Barrura begiratzeko leiboak* dokumentalak zentzu horretan egindako lana ez dut aipatu gabe utzi nahi, testigantzak oso garrantzitsuak iruditzen zaizkidalako. Uste dut politikoki hitz egin behar dugula gaiaz, maitasunak lagundu digulako egoerari aurre egiten, baina hori ere sufritu dugulako. ■



Birziklatze tasa

%42



Zuri esker
Gipuzkoa hondakinen %42 birziklatzen ari da eta 2016an %60ra iritsiko da.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

 **Gipuzkoa**
BERRIA

Lanpostu publiko elebakarrak eremu euskaldunean

Zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko oztopoek buruhauste ugari eragiten dizkiete Nafarroako herritar, eragile eta udalerrri askori. Artifizialki sortutako muga linguistikoaren legeak arautzen duenez zonalde euskalduneko herritarrek eremu publikoan euskaraz aritzeko eskubide osoa dute. Halere, zenbait sektoretako langileei ez zaie bertako hizkuntza jakitea eskatzen eta herritarrek gaztelaniara jotzera behartuta daude. Osasungintzan eta liburutegien sarean ematen dira urraketa horietako asko.

| EIDER MADINA BERASATEGI |

TTPI-TTAPA



Leitzaldean pediatria eta mediku euskalduna eskatu zituzten. Argazkian, sinadura bilketa kanpainaren aurkezpena. Leitza, Goizueta, Areso eta Aranoko guraso, haur eta udal agintariak hartu zuten parte, baita UEMako ordezkariak ere.

Administrazioko plantillan 23.000tik gora lanpostu daude eta horietatik 302ri eskatzen zaie euskara jakitea, langileen %1,2ri. Nafarren %19,2 euskalduna da

EUSKO JAURLARITZAK eginiko azken Inkesta Soziolinguistikoak (2011) erakusten du Nafarroako eremu euskalduneko %59,3 elebidunak direla eta %12,6 elebidun hartzaileak. Hortaz, orotara biztanleen %71,9 da euskalduna.

Eremu euskalduneko osasun arloan 135 lanpostu publiko daude eta horietatik 38 plazatan da nahitaezkoa euskara jakitea. Hots, postuen %28an, soilik. Liburuzainen, suhiltzaileen, mendizainen eta foruzainen kasuan, berriz, euskara jakitea meritu gisa hartzen da, baina ez da derrigorrezkoa. Beraz, kasu askotan erdaldunek betetzen dituzte leku horiek.

Zonifikazioaren ondorio larriak

Eremu mistoan egoera kezagarriagoa da, osasun arloko langile eta liburuzainen postuetan euskara eskakizuna ez delako derrigorrezkoa. Lanpostu batzuetan soilik baloratzen da merezimendutzat. Zonalde ez-euskalduneko, berriz, are larriagoa da egoera; inongo kasutan ez baita derrigorrezkoa hizkuntza eskakizuna, ezta meritu gisa ere. Horren aurrean, eremu misto-



Argazkian, UEMak Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza, Jusitizia eta Barne Saileko Batzordean egindako agerraldia, 2014ko urriaren 15ean.

ko eta ez-euskalduneko herritarrek oso zaila edo ezinezkoa dute zerbitzu publikoak euskaraz jaso eta bertako langileekin hizkuntza gutxituan komunikatzea.

Nafarroako Gobernuak ez ditu lanpostu publikoen hizkuntza eskakizunen inguruko datuak argitaratu eman nahi, "hori jakitea ezinezkoa" dela argudiatuta. Orain arte kalera-tutako zenbakiak urriak dira, baina era berean oso esanguratsuak.

Foru Komunitateko administrazioko plantilla organikoan 23.000tik gora lanpostu daude eta horietatik 302ri eskatzen zaie nahitaez euskara jakitea, langile guztien %1,2ri, hain zuzen. Datu horiek agerian uzten dute Nafarroa osoan dauden %19,2 euskaldunen hizkuntza eskubideak

ez daudela inondik inora bermatuta.

Ingelesa euskararen gainetik

Testuinguru horri kontrajarriz, Nafarroako lan publikorako egin diren azken deialdietan ingeleseko azterketak ipini dituzte eta frogagaitzak %10erainoko puntuazioa gehitzeko aukera ematen du. Hori horrela, lanpostu publikorako zenbait oposaketatan atzerriko hizkuntza jakitea baloratzen da eta, bertako hizkuntza jakiteak ez du inongo baliorik.

Osasun arreta kolokan

Lekunberriko osasun-etxera medikurako txanda eskatzeko deitu eta gaztelaniaz egin behar izaten dute

UEMA

bag-a-bi-ga
sendotasuna musikan

MANAGEMENT: (+34) 618 072 076

bag-a-bi-ga musika ideiak
tel: 618 072 076 / 026
www.baga-bi-ga.com / info@baga-bi-ga.com

korrontzi	ets	txapelpunk	hesian	doctor deseo
vendetta	emon	xaiko		eskean kristo

UEMAri ere ez diote jaramonik egiten

NAFARROAKO GOBERNUAREN hizkuntza politika murriztailearen ondorioz euskaldunon eskubideen urraketa sistematikoa da lurralde osoan. Egoera horren aurrean hainbat protesta, kexa eta kanpaina egin dira azken urteotan, baina Gobernuaren erantzuna axolagabea izan da etengabe.

Ikuspegi hori aldatzeko lanean buru-belarri dabil UEMA, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea. Herritarren % 70etik gora euskaldunak diren udalerririk biltzen ditu erakundeak. Denetara Euskal Herriko 72 udalerririk osatzen dute, horietatik 14 dira nafarrrak eta guztira Nafarroako 35.000 biztanle inguru hartzen ditu bere gain.

Besteak beste, egoera soziolinguistiko eta zerbitzuen diagnosa egiteaz, udalerrien nahiz herritarren kasuak eta kezkak aztertzeaz, eta datuak publiko egiteaz arduratzen da. Horrez gain, UEMAko kideek behin baino gehiagotan eraman dute Parlamentura euskara eta zerbitzu publikoen afera.

Hizkuntza eskubideak bermadaitezen plangintza kudeatzeko eta horretarako ezarri beharreko lehentasunak eta epeak zehazteko hartu-eman eta elkarlan iraunkorrarako gonbitea luzatu die erakundeak Osasunbideako eta Kultura Departamentuko zuzendaritzari. Ez diote jaramonik egin, ordea.

Euskararen Legea betearazteko bidean, UEMAk honako proposa-

menak planteatzen ditu, besteak beste. Batetik, eremu euskaldunean profil elebiduna eskatzea eta ordezkapenetan ere hori bermatzea. Bestetik, hizkuntza eskakizuna komunikazio gaitasuna ziurtatzen duen Europako Markoko C1 mailakoa izatea. Dagoeneko postu finkoa duten langileen kasuan, teknikariek gidatutako euskalduntze planean sartu eta berau ikas dezaten erraztasunak ematea —beti ere jendaurrean lan egiten dutenei lehentasuna emanez—. Horrez gain, paisaia linguistikoari dagoen afixak, informazio-orriak, aplikazio informatikoak eta baliabideak elebitan egotea ere eskatzen du Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak.

sarritan herritarrek. Izan ere administrari-laguntzailearen lanposturako deialdia egin zenean euskaraz jakitea merezimendu kualifikatu gisa baloratu zen. Hala ere ez zuten langile euskalduna hautatu, Larraun-Lekunberri eta Araitx-Beteluko biztanle euskaldunen kopurua % 75-80 bitartekoa izan arren.

Lesakan seme edo alabarekin medikuarengana jo eta ordezkapena egiten ari den pediatrik ere ez daki euskaraz, legez V1 hizkuntza eskakizuna (idatzian B1 eta ahozkoan B2) ezarria badu ere. Haurra ez da gai gaztelaniaz ongi adierazteko eta sendagilearen esanak ulertzeko, beraz gurasoek itzultzaile lanak egin behar izaten dituzte. Leitzako, Ultzamako, Elizondoko edo Irurtzungo kasuan pediatrik ez dute euskaraz jakin beharrik; hortaz, oso ohikoa da sendagile erdalduna egokitzea.

Elizondoko agure bikotea euskaraz mintzatu izan da beti familia-medikuarekin eta ongi ulertu dute elkar. Oporrak edo baja hartu dituenean ordezkoko erdaldunak bidali izan ditu maiz Osasunbideak, eta komunikazio arazo zenbait izan dituzte. Baina medikua jubilatu eta euskaraz ez dakien beste batek hartu du lekua. Bikote

Sakanako ikastetxeetako neska-mutilek sexu heziketa zerbitzuak gaztelaniaz jasotzen dituzte, ordezkoko erdalduna delako. Ikasleen %80 D ereduan dago matrikulatuta

nagusi horrek ezin du medikuarenera bakarrik joan, haien gaitzak adierazteko zailtasunak dituztelako eta medikuaren gomendioak ez dituztelako ongi ulertzen. Baztan udalerri euskalduna izaki, bertako bizilagunen %80 baino gehiagok daki euskaraz, baina sei familia-medikutatik biri baino ez zaie oinarritzko euskara eskakizuna exijitzen. Osasun etxeko zuzendariak eta erizaintzako arduradunak ere ez du bertako hizkuntza jakin beharrik.

Etxarri-Aranazko emakumeen arretarako zentroetako sexu-hezitzailea euskalduna izan da lanpostua sortu zenetik. Baja hartu eta ordezkoko erdalduna ipini dute, emakumeen arretarako zentroetan lan egiteko ez baita euskara jakintzarik

eskatzen. Ondorioz, Sakanako ikastetxeek lehen euskaraz jasotzen zituzten zerbitzuak gaztelaniaz soilik eskaintzen dira gaur egun, eskualde horretan D ereduan matrikulatutako ikasleen kopurua %80koa izan arren.

Doneztebeko mediku etxeko itxarongelan *Programa de atención al niño. Accidentes infantiles. Cuide por ellos* liburuxka dago eskuragai informazio-orrien artean; gaztelania hutsean dago argitaratuta. Horrez gain, baja agiriak, medikuegiagtagiriak, mamografiarako zitazioak eta gaixotasunen kontrolerako jarraibide idatziak ere gaztelaniaz betetzen dituzte Nafarroa osoko medikuek, Osasunbideako



programa informatikoek euskaraz egiteko aukerarik ematen ez dutelako.

Osasun eremuan euskara eskakizuna ezarrita duten lanpostu gutxietan V1 jakintza maila eskatzen da. Oinarrizko maila horrek ez du profesional baten komunikazio gaitasuna bermatzen.

Behatokiaren euskararen telefonoan urtero jasotako chunka kexetan oinarrituta, horien antzeko beste hainbat kasu biltzen ditu Arartekoak elebitasunari eta herriarren hizkuntz eskubideen egoerari buruz 2010ean argitaratutako txostenean. Herriarren defendatzaileak Nafarroako Gobernuari ohartarazi dion legez, errealitate horrek erabat baldintzatzen du herriarrei ematen zaien osasun arretaren kalitatea.

Liburu eleanitzak vs. liburuzain elebakarrak

Liburutegi publikoen sarean eremu euskaldunean dauden Nafarroako liburuzainen plantilla organikoan ez da profil elebiduneko langilerik eskatzen. Beraz, Altsasu, Aurizberrri, Bera, Elizondo, Etxarri, Irurtzun, Leitza, Lesaka edo Olazti bezalako herri euskaldunetako liburuzainek ez dute euskara jakin beharrik.

Hizkuntzarekin hertsiki loturik daude liburutegietan aurkitzen diren askotariko materialak, eta bertako hizkuntza ofizialetako bat ez jakiteak oso baldintzatzen du eskainitako zerbitzuaren kalitatea.

Euskaldunen hizkuntza eskubidea urratzeaz gain, hainbat arazo eragiten ditu; besteak beste, baliabi-



Kontseiluak kanpaina bera abiatu zuen Leitza, Baztanen eta Bortzirietan.

deen aukeraketan edo antolamenduan. Gainera, euskal literaturaren, musikaren eta zinemagintzaren inguruko ezagupen murrizta izateak zailtasunak ekar ditzake gomendioak emateko orduan.

Orain bi urte Nafarroako Kultura Departamentuak liburutegiko arduradun izateko 16 lanpostu eskaini zituen oposizio bidez hornitzeko. Lanpostu bakar batean ere ez zen nahitaezkoa izan euskara jakitea, zenbait postu eremu euskaldunerako izan arren. Kasu horietan, gainera, euskararen ezagutza ez zen gehigarri bezala baloratu, oposizio hutsa zelako; hau da, lehiaketa fase-rik egon ez zelako.

Antzeko afera batengatik Berako Udalak Nafarroako Gobernua auzitara eramane zuen 2010ean. Herriko

liburuzain lanposturako euskara ezagutzarrik eskatu ez izanagatik jo zuen Nafarroako Lurralde Auzitegiarengana. Urrian atera den sententziak lanpostua hautatzeko prozesua errepikatu beharko dela zehazten du eta euskara meritu kualifikatu gisa baloratu.

Pertsonak euskaldundu baina lanpostuak ez

Duela 28 urte onartutako Euskararen Legeak aitortzen du Nafarroako eremu euskaldunean herriarrek zerbitzu publikoak euskaraz jasotzeko eskubidea dutela. Mementuan hala ez bada administrazioak hori lortzera jo behar du progresiboki, horretarako beharrezko baliabideak eskainiz.

Nafarroako Gobernuak arlo publikoko funtzionario eta langileak euskalduntzeko zerbitzua abiatu zuen 1989an. Ordutik chunka nafar prestatu dira, baina inolako irizpide eta jarraipenik egin gabe. Ez da legeak adierazi bezala teknikari eta adituek prestatutako euskara planik egon eta langile elebidunak eskatzen diren postuetako funtzionarioei ez zaie lehenasunik eman postuak progresiboki euskalduntzeko. Jendaurreko lanetan ari diren langileei ere ez zaie inongo lehenasunik eman.

Bestalde, orain arte euskara ikasten ibili diren funtzionarioek euren lanean izan duten hizkuntza erabileraren inguruko jarraipenik ere ez da egin, ezta gaiaren inguruko inolako kontrolik ere. Finean, chunka pertsona euskaldundu dira, baina lanpostuak ez. ■



4.784

Pertsonentzako laguntza sozialak

Zuri esker
Gipuzkoako 4.784 familiak jaso dituzte laguntza sozialak.

Gipuzkoa berria egiten ari gara.
Solidarioagoa. Iraunkorragoa. Justuagoa.

Gipuzkoa
BERRIA

‘UK’ aldizkaria desagertu eta ‘Hiruka’ abiatuko da

BATEK EZ, bi komunikazio proiektuk itxiko dituzte ateak, baina ordainetan hiru euskarritan arituko den komunikazio egitasmoa jarriko dute abian Bizkaiko Uribe Kosta eskualdean.

Hiruka komunikazio taldeak atari digitalari, paperezko astekariari eta irratitari helduko die. Bistan denez, ez dira ezerezetik sortuko, orain arteko ibilbideaz baliatu eta proiektu sendoagoa egiteko asmotan dira Uribe Kostan.

Getxon, ia duela 20 urte *Bizarra Lepoan* aldizkaria sortu zuten eta 1999an UK aldizkari bihurtu zen.

UKberri.net atari digitalak berriz, 11 urteko ibilbidea egin du. Koska irratia ere hainbat urtez entzun ahal izan zen uhinetan.

Urtarrilarren bukaeran paperezko astekaria eta atari digitala hasiko dira lanean eta hilabete batzuk geroago Justuri Irratia abiatuko da. Uribe Kostako komunikazio talde euskaldun berriak irabazi asmorik gabeko kooperatiba sortu du. Egitasmoa



Azken “UK”, egitasmo berriaren berri ematen.

sostengatzeko bazkide erabiltzaileak eta laguntzaileak izango ditu.

Erabiltzaileen kasuan, pertsona juridikoek 1.000 euroko inbertsioa egingo dute eta norbanakoek 100 eurokoa. Laguntzaileen kasuan, pertsona juridikoek 200 eurokoa eta norbanakoek 50 eurokoa. Gainera, 33 euroko kuota ordaindu beharko dute urtero.

Anjel Lertxundik Berrian esanak:

“Hedabide dezente azpimarratu zuen Arantza Quiroga euskaraz jardun izana popularren La Granjako konbentzioan: Urquijo han baldin bazebilen, ikustekoak izango ziren haren espantu, imintzio eta pariztak.

Aurtengo Durangoko Azokak Quirogaren bisita izan zuen albisteetako bat: han ere ez genuen Urquijo ikusi haren alboan eta abaroan.

Laster, hauteskundeak, klaro. Baina Quirogak sinesgarritasun gehiago irabaziko luke argituko baligu bat al datorren Urquijok EAEn praktikatzen duen euskararen herra neurotikoarekin: nik dakidala, Europak ez du Urquijok salatutako neurri bakar bat salatu. Aitzitik, ordea, Nafarroan: Europak salatua du bertako Gobernuaren euskararen kaltetako erabaki bat edo beste, baina Nafarroako delegatuak, Carmen Albak, Europari pase foralaren erantzuna du arau.

Quirogak aplikatuko lukeen hizkuntza politika bat dator bere alderdiko bi delegatuenarekin? Erantzunak sinesgarritasun gehiago emango lioke bere kanpaina hasierari”.

EKONOMIAREN TALAIA • TERMOMETROA

Lanbide Heziketa berreskuratu

Langabeziak gazteen %50ari eragiten dio eta Euskal Herrian ere arazo oso larria da. Horregatik, haren kontra egin eta alternatiba sendo eta errealak eskaini behar dira. Azken asteotan zientzia, teknologia eta berrikuntzaren alorrean hainbat plan aurkeztu dituzte, eta horien bidez 2015erako enplegua sortzeko promesak egin dituzte. Etorkizuneko sektore berriez asko hitz egin da: nanoteknologia, bioteknologia, ekonomia berdea, informazio eta komunikazioa... Esaten dutenez —gehiegi zehaztu eta neurtu gabe— enplegu egonkorra sortuko dute, ongi ordaindua eta deslokalizatu ezin dena. Egia ote da? Agian.

Ezein gaztek, ordea, ez du izango baliabiderik sektore horiek eskatzen duten prestakuntza mailara iristeko. Milaka dira gaur egun sektore horiekin inolako loturarik ez duten gazteak. Badaude ordea beste batzuk, krisia gainditutakoan pertsonal espezializatua beharko dutenak. Eta horretarako Lanbide Heziketa indartu eta berreskuratu beharko da. Bere garaian, arte eta lanbideen eskolek milaka euskaldunentzako enplegua segur-

tatu zuten. 1985-1990eko krisiaren ondoren enpresa ugari eskulan berezitua behar zuten eta Euskal Herri- kanpo ekarri behar izan zuten, lanbide heziketa bazterrean utzita egon zelako.

Familien, hezitzaileen eta erakundeen eginbeharra da gure gazteria orientatu eta azaltzea euren etorkizuna asebetetzeko bide guztiak dituztela irekita, berdin unibertsitatean eta lanbide heziketan. Industrian eta zerbitzuetan enplegu ugari dago eta horietara lanbide heziketa duin batekin ere irits liteke. 2020an kualifikazio berezirik gabeko pertsonentzako lanpostuak %8 baino ez dira izango Euskal Herrian. Oso baliagarria litzateke erakundeek, beste neurri batzuen artean, Lanbide Heziketako alor ugarien berri emango balute, hala nola azalduko balituzte bide hori aukeratzen duten etorkizuneari enplegua lortzeko dituzten posibilitateak.



Juan Mari Arregi

SDB

SORTUKO DIRA BESTEAK KONTZERTUA

GERNIKA
URTARRILAK 3
JAI ALAI
21:30 etan

EÑAUT ELORRIETA
ALEX SARDUI
MIKEL URDANGARIN
PETTI
ESTITXU PINATXO
PIER PAUL BERZAITZ
OLATZ PRAT
MIXEL DUCAU
KIRMEN URIBE



Bill Gatesek Afrika eta Asiako laborariak nola salbatuko dituen

Duela hamar urte, Microsoften ugazaba txit aberatsa ez zen inor nekazaritzan. Orain agente garrantzitsu bihurtu da, Afrikan batik bat. Hemengo laborantza modernizatzeko 3.000 milioi dolar inbertituak ditu jadanik Bill&Melinda Gates fundazioaren bitartez. Nola eta zertarako, GRAIN elkarteak erakutsi du.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

IRAULTZA BERDEA 2.0 AGINTZEN die Afrika eta Asiako nekazari txiroei Bill Gatesek. Urtean hainbat aldiz haren lorpen eta proiektuen propaganda eginez hedabide nagusiek kontsolatzen dituzte planetako gosearekin kezkatutako jendeak: ezinezkorik ez da munduko gizon arrakastatsu eta aberatsenarentzako, gai izan den bezala Windows sartzeko mundutar gehienon bizitzetan, asmatuko du txiro guztien platerak egunero asetzea.

Bill&Melinda Gates Foundation klikaturik iritsi baldin bazara *Agri-cultural Development* atalera, laborari beltz irrifartsu batek egingo dizu diosala ondoren azaltzeko fundazioaren arima: “Gure helburua: Asia hegoaldeko eta Saharaz beheko Afrikako milioika baserritar familiaren gosea eta pobrezia arintzea nekazaritzaren produktibitatea handituz modu iraunkor batean”.

Aurreraxeago, fundazioak dio: “Nekazariei galdetzen diegu zein labore nahi dituzten erein eta jan, zer nolako erronka handiak dauzkaten. Elkarlana antolatzen dugu erronka hauek ulertu eta aurre egiteko antolamendua daukaten erakundeekin, eta dirua sartzen dugu ikerkuntzan, nekazariak nahi dituzten eta erabiliko dituzten soluziobide garrantzizko eta egingarriak aurkitu eta ezartzeko”.

Hitzezko asmoen atzean dagoen errealitatea ikertu du GRAIN erakundeak. Elikadura burujabetasunaren alde ari diren laborari txikien eta elkarten interesak defendituz, Bartzelonan egoitza duen Gobernu Kanpoko Erakunde honek oso informazio garrantzitsuak zabaltzen ditu lurraren lapurretaz, agro-industriaz, hazien kontrolaz, klimaren krisiaz eta abarrez. Fundatzaileen artean dago Paul Nicholson Bizkaiako EHNEko buruzagi historikoa.

GRAINEk berrikitan plazaratu du *Nola erabiltzen du dirua Gates Fundazioak mundua asetzeko?* txostena, ingelesez gain gaztelaniaz eta frantsesez ere eskuragarri. Fundazioaren babesleak, onuradunak eta diru kopuru nagusiak zertan erabili dituzten aztertu ditu xeheki.

Gatestarren fundazioa da gaurko munduko handiena diru kontuak ezagutzen zaizkienen artean. 40.000 milioi dolar bildu ditu 2.000.etik hasita orain arte, gehienik Gates senar-emazteek eta laguna duten Warren Buffet multimiliodunak emanak. Iaz bertan 3.600 milioi dolar bildu zituen. Dirutza hori kudeatzen darabil 1.200 enplegatu-ko egitura handia.

Fundazioaren sosak oraindik ere gehienik AEBetan gastatzen dira, hezkuntza eta osasun alorrean dauzkaten proiektuetan.

AGRA erakundeak bere web korporatiboan titulu hau ipini dio alboko argazkiari: “*Malawi-agro-dealer*”. Malawin haziak, tresneria txikia eta kimikoak saltzen dituen dendari txiki bat da. Afrikan laborantza industrialak sustatzen duen AGRA elkarteak (Gatestarren fundazioaren diru-laguntzaz) 4,3 milioi banatu ditu Malawin horrelako dendarien sarea osatu dadin, hauek saldu behar dituztelako arto eta beste hazi hibridoak, pestizida, herbizida eta ongarri kimikoak. Transgenikoetan txapeldun dabilen Monsanto dute hornitzaile nagusi. Munduko Bankuak adierazi du saltzaileok direla gaur baserritar txikien informazio iturri nagusiak. Technoserve izeneko GKEak ere antzeko aholkularitza lana egiten du; hau sustatzen dute, Cargill, Unilever, Coca-Cola eta Nestlé multinazionalak ere. Sare pribatuok hartzen ari zaizkie lekua estatuek antolatutako lehengo sareei eta baserritarrek beren kasa kudeatuei.

Baina 2006tik hona nekazaritzako egitasmoetan hasi dira Gatestarrak sos handiak ematen, gehienak Afrikan baina baita Asiako ekialdean ere.

Inbertsiook bideratzeko sortu zuten Alliance for a Green Revolution in Africa (AGRA), Afrikan Iraultza Berdea aldarrikatzen duena. Beste donazio asko CGIAR ikerketa erakundearen bitartez bideratzen ditu Bill eta Melindaren fundazioak. 2007an bertan 500 milioi dolar sartu zituzten laborantza proiektuetan, aurrerantzean handitzeko. Dirutza horiekin nekazaritza alorreko ikerketa eta garapen proiektuen Afrikako agenda irauli du.

Afrikarren morrontza berria

Gatestarren fundazioaren eragina rekin batera handitu dira berekiko kritikak ere. Multinazionalen kontrako taldeek salatzen dute fundazioetik sustatzen dituztela AEBetako korporazioek merkaturatu teknologian oinarritutako hazi eta kimikoak, belaunaldi luzez bertako nekazariak sortutako ezagutza eta sareak mesprezatuz laborategi zentralizatuak zientzialariekin obsesionatuta ari direla, eta agenda politikoan ere esku hartzen dutela, hazien eta transgenikoen inguruko legeak bul-tzatuz.



GRAINEk bere aldetik aztertu ditu fundazioaren urteotako laguntza eta inbertsioak. Bere webgunean xehetasun handiz larrutu ditu Gatestarren filantropiazko ekintzak. Kiroltasun handiz, GRAINEk agiriari lotu dizkio Bill Gatesen eta AGRAren erantzunak ere. Hemen laburbilduko ditugu GRAINen ondorio nagusiak.

Bat: Gatesek Hegoko gosea borrokatzen du dirua Iparrekoei emanez. Donazioen %80 AEBetako elkarteei doakie, Afrikarrei doidoi %10. Diru asko unibertsitateri eta ikerketa zentroei doakie. GKEei doazkien donazioetan, tarteare nabarmenagoa da.

Bi: Gatesek zientzialariei ematen die dirua, ez baserritarrei. Deigarria

da CGIAR ikerketa zentro sareari ematen dion sostengua. 1960-70eko hamarkadetan laborantza industrian oinarritutako lehenbiziko Iraultza Berdean protagonismo handia eduki zuen CGIAREk, eta geroago demostratu zenean balizko iraultza hark gosea konpondu baino handitu egin zuela, arazo ekonomiko, sozial eta ekologiko handiez gain, ahuldu zen ikertzaileen eragina. Orain Gatesi esker bigarren Iraultza Berdea iragartzen du.

Hamar urtetan 700 milioi dolarrez goiti oparitu dizkio Gatesek CGIARI, nagusiki sareko zentro europar eta afrikarrei. Horiek egiten duten ikerketa eta garapen lanaren osagarri ari da AGRA Afrikan bertan, Iparretik inportatutako tek-

nologiak eta horien emaitzak (tresnak, kimikoak, haziak...) baserritarren artean sustatzeko oinarritzko lana eginez. Bitartean, Afrikan oraindik nekazaritzan erabiltzen diren hazien %90 ekoizten dituzten lekuko baserritarrek ez dute Gatesen sosik ikusi.

Hiru: Gatesek eragin politikoa erosten du. Horretarako sortu zuen Alliance for a Green Revolution in Africa (AGRA) sarea 2006an eta geroztik 414 milioiz bazkatu du. AGRAk eragin handia dauka Afrikako estatuek laborantza politikak erabakitzen dituztenean, lurren kudeaketaz bezala haziez.

Herrialde bakoitzean ekintza politikorako elkarguneen (*policy action nodes*) bidez egiten du lan, AGRAk zuzenean izendaturiko adituekin. Taldeon bultzadaz Ghanak eta Mozambiquek aldatu dituzte haziak eta bio-aniztasuna zaintzeko legeak, Tanzaniak aldatu ditu lurren jabegoa arautzen zutenak...

Lana borobiltzeko, Afrikako Laborantza Teknologientzako Fundazioaren (AATF ingelesez) bidez lobby lana egiten du herritarrek bezala agintariei transgenikoei buruzko iritzia aldatu dezaten.

Honela bukatzen du analisisia GRAINEk: "Afrikako laborariak hartzaile huts nahi dituzte, bestek sortutako ezagutza eta teknologien kontsumitzaile. Esan liteke funtsean Gates fundazioa honako oinarri nagusiak gidatzen duela: bere teknologiak nekazariei saltzeko komertzializazio ariketa bat da. Honetan Microsoften antza handia dauka". ■



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona



DANI BLANCO

Erabaki eskubidearen urtea

2014KO EKAINAK 9. Gure Esku Dagok antolatutako Durango-Iruñea giza-katearen biharamuna da. Euskal abertzaletasunak azken hamarkadatan egindako mobilizazio zibil garrantzitsuenaren balorazioa egiteko ordua da. Beroan aztertuta, arrakasta itzela izan da. Kolore guztietako abertzaleak euskal gizarteak bere etorkizuna erabaki ahal izateko eskubidearen aldarrikapenean. Eta abertzale mugimendu zabal horren ondoan, herrien erabaki eskubidea eskubide demokratiko gisa hartzen duen gizarte sektorea ere bai. Herri garelako erabaki nahi dugu, eta batez ere herritar garelako.

Hotzean begirata ere, mobilizazio erabat arrakastatsua izan zen: gizarte zibilarren protagonismoa berreskuratzeko ahaleginean norabidea finkatu zen. Orain bidea egin behar da. Izan dezake abertzaletasunaren folklorean erortzeko arriskua, baldin eta indarra ekitaldi erraldoian jartzen bada eta ez sare-tzean. Gure Esku Dagok izan zituen egungo gizarte moderno eta mediatikoek behar dituzten osagai nagusiak: moldearen erakargarritasuna eta salmenta; eduki oinarri sendoa eta sustraitua —erabaki eskubidea—; eta sarea. Eta funtsean, hirugarren hori sendotzen bada betekatu ditu bere helburuak mugimenduak. Horretan ari da.

ESKOZIA eta Katalunia izan dira ispilu. Irailaren 18an unionismo britainiarra aise gailendu zitzaion eskoziar independentismoari. Alabaina, pozik daude eskoziar independentistak: ez dute independentzia eskuratu baina eskoziar gizartearen independentzia zaleagoa

da eta autogobernu maila handiagoa lortuko du. Edo hala ematen du behintzat.

Eta bada hemen gako interesgarria hausnarketarako, Asier Blas independentzia prozesuaren EHUKo ikertzaileak behin baino gehiagotan gogorazten duen moduan: estatua eta banatu nahi duen herriaren artean behar adina tentsiorik ez dagoenean, prozesu adostuetan oso gaitza da independentzia lortzea. Eta hausnarketa horretatik geratzen diren galderak garrantzak dira, edo gutxienez oso konplexuak: orduan, independentziaren aldeko gehiengo demokratikoak irabazteko, akordioak nahi

Herrigintzan aurrera nola egin, hori da gaur egun euskal nazioak duen zeregin garrantzitsua

ez duen estatuarekiko tentsioa da landu beharrekoa edo etengabe akordioaren bidea? Non eta nola uztartzen dira gehiengo demokratikoak elikatu eta Estatuarekiko tentsioa bultzatuko dituzten jarra eta esparruak?

Eskozian badira erantzunak, eta haiek akordioaren aldeko urratsa eman zuten, independentismoak indar gehiago metatzera itxaron barik. Nahiko lukete Europar Batasuneko estatu gabeko herriek horrelako aukerarik izatea beren prozesuetan.

KATALUNIA ere badira erantzunak, eta Euskal Herriko bideak badu zerikusi handiagoa azken honekin Eskoziarekin baino, besteak beste Estatu beraren itxidura erabatekoari egin behar diolako


aurre. Edo ez du, katalan independentistek ez bezala, euskal abertzaletasunak oraindik lurralde batasuna hobesten duelako independentziaren aurrean.

Kazetari katalan batekin hango prozesuaz berbetan ari ginela zera luzatu zidan gureaz: “Azkenean zuen kontzertuak independentziarako bidea oztopatzen dizue”. Artur Masek independentziaren bidea edo estatua-ren finantziazioaren azenarioari helduko ote zion argi ez zegoen garaiko hizketaldia zen aipatutakoa. Harrezkero Masek asko argitu ditu bere asmo eta proposamenak (“inoiz ez nukeen pentsatuko Mas puntu honetara iritsiko zenik. Gehiago esango dizut, ezagutu dudaneurrian Mas ez da independentista konbentziturik”. J.L. Rodriguez Zapatero, *El Temps*, abenduak 2).

Kontua da orain datorren Generalitateak independentziaren lehen urratsak eman ditza-keela mugimendu soberanistak datozen hauteskundeak irabazten baditu. Orduan tresnak beharko ditu, eta seguruenik bidearen herena egin luke herritarren zergak biltzeko kontzertua moduko tresna bat balu. Tresnak eta helburuen ohiko eztabaidara iristen gara horrela, ezinbestekoa beti eta sarritan antzua, garrantzitsua, azken finean, herrigintza delako. Tira, ikasgairik bada zera da, herri bakoitzak bere egoera eta ezaugarriekin egin behar duela aurrera. Horregatik, herrigintzan aurrera nola egin, hori da gaur egun euskal nazioak duen zeregin garrantzitsua, independentziarik bada noizbait haren gainean egingo delako. ■



ASTE HONETAKO Zozketa



Argiako harpidedunentzat



Atxaspi Hotela

Bi lagunentzako
relax gaua
asteaz zehar

Bittirika kalea, 24
Lesaka NAFARROA

www.atxaspi.com

1

STM San Telmo Museoa



San Telmo museoa

3 lagunentzako
bina sarrera

Zuloaga, 1
Donostia GIPUZKOA

www.museosantelmo.com

2

Ekain berri



Ekainberri

3 lagunentzako
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

3

BROKEN BROTHERS Brass Band



Broken Brothers Brass Band

The live
deserves

5 CD opari

4



Okatxu

komikia opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2441. Argia)

LAR ZALDIK

- Iban Garate Garmendia (Gasteiz)

EKAINBERRI

- Miren Garcia Dalmau (Hernani)
- Karlos Zarraga Ellakuria (Zaratamo)
- Artez euskara zerbitzua (Bilbo)

EUREKA

- Juankar Bermejo Mateos (Laudio)
- Raco De La Corbella (Valentzia)

AQUARIUM

- Josu Jimenez Muro (Donostia)
- Txebis Gorritxategi Gorosabel (Ermua)
- Joxin Iturriotz Ostolaza (Azpeitia)
- Edurne San Martin Larrañaga (Eibar)

ERLEA

- Joxe Mari Eizagirre Uranga (Zarautz)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.eus

www.argia.eus/gunea

gunea

argia



#DARPIDEGU

**ARGIAK HARPIDEDUN BAT
EGITEN DUEN ALDIRO...**



**HARPIDETZA BAKOITZAREKIN,
ARE INDEPENDENTEAGO**

ARGIA astero jasotzeko aukera:

hilean 12 € baino ez!*

ARGIA hilean behin jasotzeko aukera:

hilean 4 € baino gutxiago!**



☎ 943 371 545

harpidetza@argia.eus

www.argia.eus/harpidetza

(*) 145 euro urtean. Igorpenetan ordainketa urtean behin edo bi zatitan egiteko aukera (46 zenbaki + 11 Larrun + Urtekaria). (**) 41 euro urtean (11 zenbaki + 11 Larrun).